



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

## **Bertso-jolasak: Haur Hezkuntzan ahozkotasuna lantzeko baliabide**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Karasatorre Martinez, Saats.

ZUZENDARIA: Zelaieta Anta, Edu.

**2020-2021**

## Laburpena

Filogenesiak espezie gisa eta ontogenesiak norbanako gisa, ahozketasuna lantzen kokatzen gaituzte idatzitako hitzaren aurretik. Hala ere, eskola irakurketa-idazketa irakasten zentratu da urte luzez, ahozketasunaren kaltetan.

Euskalgintzak ere eskolako hizkuntza formalari eman izan dio lehentasuna, ondoren kaleko euskara jasotzea errazagoa izango zelakoan. Ahozketasuna berariaz, motibazioagatik eta jolasaren zein plazeraren bitartez lantzearen ideiak logika hori erdibitu egiten du.

Haurrei hitz egiteko gaitasuna onartzen diegu baina, auskalo zergatik, ez diegu neurri berean hitzarekin jolasteko gaitasunik egozten. Bertso-jolasaren kontzeptuak komunikazio-gaitasuna hartuko du kontuan bere osotasunean, hizkuntza ludikoa eta poetikoa garatzeko baliabideak eskainiz. Haurren hizkuntzarekiko berezko jakin-mina kontuan hartuz eta, jolasaren bidez, ahozketasuna lantzeko saiakera izango da.

Utzi diezaiegun haurrei euren gaitasunak deskubritzeko beharrezko tartea, hizkuntzarekin eta hitzekin jolasteko beharrezko espazioa, euren kabuz hitzaren aukera anitzak deskubritzeko abagunea. Haien ondoan eseri gaitezen eta eskaini diezaiegun behar dutena, eurek egingen dute gainontzekoa. Bost urteko umea txikia izanen da baina, bateren batek esan zuen bezala, eskasa ez.

**Hitz gakoak:** ahozketasuna, bertso-jolasak, euskara, Haur Hezkuntza, pedagogia librea

## Resumen

Tanto la Filogénesis, desde una perspectiva como especie, como la Ontogénesis, con un enfoque dirigido hacia el individuo, nos sitúan trabajando la oralidad antes de la palabra escrita. Sin embargo, la escuela se ha centrado durante largos años en enseñar lecto-escritura en detrimento de la oralidad.

El movimiento popular a favor del euskera, también ha dado prioridad a la lengua formal de la escuela. Nos hemos venido planteando, desde la confianza, que así sería más fácil recibir el euskera de la calle. La idea de trabajar la oralidad de una forma

específica, por motivación propia y mediante el juego y el placer, nos hace replantearnos esta lógica.

Aceptamos en niñas y niños la capacidad de hablar pero, nos equivocamos al no atribuirles, en la misma medida, la capacidad de jugar con la palabra. El concepto de “juego de bertsos”, tendrá en cuenta las diversas competencias comunicativas en su conjunto, a la vez que se incide en la aportación de recursos para el desarrollo de un lenguaje lúdico y poético. Se trata de un intento de trabajar la oralidad a través del juego, acompañados siempre por esa innata y preciada curiosidad del niño o la niña hacia el lenguaje.

Dejemos a nuestra infancia el espacio necesario para poder ir descubriendo sus capacidades. La motivación imprescindible que les estimule a jugar con el lenguaje como transmisión de sus sentimientos y necesidades. La ocasión que les facilite descubrir, por sí mismos/as, las múltiples posibilidades de una expresión. Sentémonos a su lado y ofrezcámosles lo que necesiten, ellas y ellos harán el resto.

**Palabras clave:** oralidad, juegos de bertsos, euskera, Educación Infantil, pedagogía libre

### **Abstract**

Philogenesis as a species, and ontogenesis as an individual, place us in the cultivation of orality before the written word. However, the school has focused on teaching reading-writing for years to the detriment of orality.

Popular movement in favour of Basque has also given priority to the formal language at school, believing that it would be easier to receive Basque from the street. The idea of working the orality in a precisely way, from own motivation and helped by the game and pleasure breaks this logic.

We accept the ability of children to speak, but for some reason we do not attribute them the ability to play with the word. The concept of ‘verse game’ will take into account the capacity of communication in its entirety, providing resources for the development of the lyrical and poetic language. It will be an attempt to interest the children by its natural curiosity of the language and to cultivate the eloquence by playing.

Let us allow children the necessary space to discover their abilities, the necessary space to play with language and words, the opportunity to discover by themselves word multiple possibilities. Let us sit with them and offer them what they need, they will do the rest.

**Key words:** orality, game of bertso, Euskara, early childhood education, free pedagogy

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b>	<b>2.orrialdea</b>
<b>2. Justifikazioa</b>	<b>3-4.orrialdeak</b>
<b>3. Marko teorikoa</b>	<b>5-13.orrialdeak</b>
3.1. Behar soziolinguistikoak	5-6.orrialdeak
3.2. Behar sozialak eta dekolonialitatea	6-7.orrialdeak
3.3. Pedagogia feministaren beharra	8-9.orrialdeak
3.4. Hizkuntzaren didaktika	9-10.orrialdeak
3.5. Ahozkotasuna	10-13.orrialdeak
3.5.1. Ahozkotasunaren garapena	10.orrialdea
3.5.2. Ahozkotasunaren didaktika	10-12.orrialdeak
3.5.3. Bertso-jolasa	12-13.orrialdeak
<b>4. HHko Curriculumaren azterketa</b>	<b>13-19.orrialdeak</b>
4.1. Curriculumarekiko lotura	14-19.orrialdeak
<b>5. Metodologia</b>	<b>19-25.orrialdeak</b>
5.1. Baliabideen proposamena	21.orrialdea
5.2. Espazioaren diseinua	22.orrialdea
5.3. Denboraren antolaketa	23.orrialdea
5.4. Irakaslearen/hezitzailearen profila eta rola	24-25.orrialdeak
5.5. Aniztasunaren trataera	25.orrialdea
<b>6. Bertso-jolasetarako baliabideak</b>	<b>25-35.orrialdeak</b>
6.1. Elkar ezagutzen	26-27.orrialdeak
6.2. Elkarrizketak	27-29.orrialdeak
6.3. Irratsaioa	30-31.orrialdeak
6.4. Errimadun <i>memorya</i>	31-32.orrialdeak
6.5. Mikrofono irekia	33-34.orrialdeak
6.6. Hizkuntza poetikoa	34-35.orrialdeak
<b>7. Ebaluazioa</b>	<b>35-37.orrialdeak</b>
<b>8. GrALaren balorazio pertsonala</b>	<b>37.orrialdea</b>
<b>9. Erreferentzia bibliografikoak</b>	<b>38-40.orrialdeak</b>
<b>Eranskinak</b>	

## 1. SARRERA

Lan honen oinarriari begira jarrita, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko azken kurtsoan ahozkotasuna lantzeko proiektu bat denaz ohar gintezke lehen kolpetik. Hain zuzen, bertsogintzaren hastapen gisa ulertu genitzakeen jolasetatik sortuko den proiektua izanen da, aurrerantzean bertso-jolasak deituko dieguna. Betaurreko horietatik behatuko du haurren ahozkotasunaren garapena eta, ondoren, hori gerta dadin hartu daitezkeen bide ezberdinetatik joateko saiakera egingen du. Bide horretan ikuspuntu feminista bat txertatzeko ahalegina ezinbestekoa izanen da, oholtzaren gainean eta oholtzatik kanpo ematen diren botere harremanak hertsiki lotuak baitaude eta horiengatiko erasoak azaleratu eta zalantzan jartzen hasteko adin oro ona baita. Lan horretan lagundu nauen emakume taldeari nire eskerrik beroenak. Gainera, ikaspen-irakaspen (ordena horretan) prozesuaren metodoa zaintzeko saiakera egingo da, umeen berezko erritmo eta jakin-minak errespetatze aldera. Bestalde, ezingo dugu ahaztu, euskara hizkuntza gutxitua den heinean, hizkuntza hegemonikoek haur oren garapenean izanen duten eragina.

Horrenbestez, lau izanen dira lan honen zutaberik nabarmenenak, zimenduak zehaztetik hasiko bagara:

1. Bertso-jolasak
2. Ahozkotasunaren garapena eta didaktika
3. Pedagogia libreak
4. Euskararen egoera soziolinguistikoa

Ondotik, lanaren justifikazio pertsonalaren eta akademikoaren arteko uztarketa eskainiko da, marko teorikoa izanen da segida eta, ondoren, lanaren alderdi kurrikularra izango da landuko dena.

Curriculumaren azterketaren eta curriculumarekiko loturaren ostean, proposamena hezurmamitzen duten baliabideetan jarriko dugu begirada. Lehenik eta behin, proposamenaren nondik norakoak zehaztuko ditugu; espazioaren diseinua, irakaslearen papera, denboraren antolaketa eta beste zenbait aspektu metodologiko. Amaitze aldera, baliabide horiek beteko dituzten gaitasunak, helburuak eta edukiak azalduko ditugu. Azken lana proposamenean zehar kontsultatu diren erreferenteen zerrendatzea izanen da.

## 2. JUSTIFIKAZIOA

Lan honen beharra justifikatzeko hiru adar nabarmenduko nituzke; lehenik eta behin, ahozkotasanaren garapenak haurrengan eragingo dituen onurak, bestetik, Bertsozale Elkarteak identifikatutako bertsolaritzaren transmisioaren etena eta, amaitzeko, gure hizkuntzaren inguruko kale-neurketen emaitza gordinak.

Bertso-eskoletako irakasle gisara aritu izanak haurrei bertso-jolasak eskaintzen dizkien aukerak ikusteko abagunea eskaini izan dit. Euskara halabeharrez erabiltzetik taldean euskarazko harremanak sortzera pasatu izan direla ikusteko aukera eman dit; euskararekiko atxikimendua indartzera, euskarazko hitz berriak ezagutu nahi izatera... Afektiboki euren sentipenak azalertzeko baliabidea zaie bertsoa eta, jolas forman eskaintzean, talde kohesioan eta euren arteko harremanetan eragin positiboa duela esan nuke. Dena dela, gaur arte Lehen Hezkuntzako ikasleekin baino ez naiz ibili eta, derrigor, umeen adinera egokitzen asmatzea izanen da proiektu honen erronka nagusietako bat.

Baina ez da nire aieru hutsa, ahozkotasanaren garapenaren onurak anitzak dira zenbait adituren esanetan. Marta Armestoren (2019) esanetan, adibidez, ulermenean, hiztegiaren eraikuntzan, ahoskeran, intonazioan eta bokalizazioan eragina dauka. Gainera, sormena eta irudimena lantzeko baliabidetzat ulertzen du, emozioen ulermen eta kudeaketarako tresna esanguratsua izateaz gain. Uri Ruiz Bikandik (2010) dio lehen hizkuntzan (H1) ahozkotasuna lantzeak eragin zuzena daukala bigarren hizkuntzako (H2) komunikazio gaitasunean, komunikazio gaitasuna hizkuntza-gaitasunetik haratago doan sakoneko gaitasun gisa ulertuta.

Ahozkotasuna modu esanguratsuan lantzeko hizkuntzaren hiru funtzio kontuan hartu beharko genituzke: funtzio komunikatiboa, adierazpen-funtzioa eta jolas-funtzioa (Bigas, 2008). Hiruak ere, bertsogintzak bere egiten dituen funtzioak.

Baina zergatik Haur Hezkuntzatik hasita? Pentsa genezake haurrei arrotza zaiela, eta zuzen geundekeela esateko moduan nago, behintzat, ez bagenu bertsoaren hastapen gisara ulertuko dugun bertso-jolasaren kontzeptua txertatuko. Haur Hezkuntzako gelatan aritu izanak erakutsi dit haurrek modu natural eta autonomoan hitzarekin jolasteko joera erakutsi ohi dutela. Berdin hasten diren hitzak, zolitasun beretsukoak, errima asonante zein kontsonanteak, abestien jatorrizko doinua mantenduz letra aldaketak, hitzak musikatzea...

Finean, jolas horiek modu autonomoan eta haurren erritmoa errespetatuz hauspotuko dituen baliabide-sorta baten sorrera izanen da proiektu honen xede praktikoa; betiere,

ahozkotasunaren garapenaren mesedetan. Bertso-jolasetatik hurbil irudikatzen dudana proposamena izanda ere, hainbat forma hartu litzakeela esan beharrean nago. Hezitzaileentzako baliabide izateko jaioa den proposamena da honakoa, bakoitzak bere aldagaiak erantsi ahalko dizkiolarik.

Segi dezagun, bada, Bertsozale Elkartearen irakurketarekin. Erakunde horrek eskatuta, EHUko soziologo talde batek *Bertsozaletasunaren III. Azterketa Soziologikoa* egin du 2016 eta 2018 urteen artean. Harkaitz Zubiri, Xabier Aierdi eta Alfredo Retortillo izan dira lan horren arduradun. Gerora, *Bertsolari aldizkarian* (2018) agertu bezala, Bertsozale Elkartek datu horien irakurketarekin hasitako prozesuak gaur arte dirau.

Bertsozaletasunaren eta bertsogintzaren transmisio modu naturalagoek (etxean, plazan, lagunartean...) huts egitean (Eizagirre, 2016), bertso-eskolek hartu zuten transmisiorako paper hori eta, hein handi batean, ederki bete dute esleitutako papera. Bertsozaletasunak, eta bertsolaritzak kontzeptu orokor gisa ulertua, bere transmisio gune propioak sortzen asmatu du Iratxe Retolazak *Hik Hasi* aldizkarian (2018) nabarmendu bezala. Bertso-eskoletatik aparte, txapelketek, hezkuntza arautuko eskolek, udalekuek... ere balio izan dute bide horretan aurrera egiteko. Horrek, aldiz, hutsune nabarmena uzten du lehenagoko transmisioarekin alderatuz gero; haurrak Lehen Hezkuntzako azken urteetan hasi ohi dira bertso-eskolan edo hezkuntza arautuan bertsolaritza lantzen (LH 5-6 oro har). Horrek esan nahi du, etxetik transmisio hori jasotzen ez duen gehiengoaren kasuan, 10 urte izan arte ez daukatela bertsolaritzaren inguruko ezagutza txikienik ere; igande eguerdiko zappingean kasualitatez jaso dezaketenetik harago ez, bederen.

Hori dena argituta, hirugarren adarrera begira jarri gintezke, euskararen egoera soziolinguistikoari hain zuzen. Horretarako Soziolinguistika Klusterrak (2017) 2016 urtean osatutako azken kale-neurketei begira jartzearekin nahikoa litzateke: Euskal Herriko 144 udalerritan 187.635 elkarrizketa behatu dira, 515.260 solaskidek parte hartu dute elkarrizketa horietan. Horietatik, %12,6 euskaraz eman zen, %76,4 gaztelaniaz, %8,3 frantsesez eta %2,7 beste hizkuntzaren batean. Hots, Euskal Herrian neurtutako elkarrizketen %87,4 erdaraz eman zen 2016ko udazkenean.



### 3. MARKO TEORIKOA

#### 3.1. *Behar soziolinguistikoak*

Euskal Herrian Euskarazek eta Aztikerrek (2018) elkarlanean osatutako txostenean datu esanguratsua ematen da: EAEn 1978-2001 urteen artean jaiotako 206.263 herritarrek derrigorrezko hezkuntza amaitu dute euskara maila nahikoa lortu gabe, %50,43a. Aipatu txostenak irakastereduen sistemaren porrotari egozten dizkio datuak.

Bere aldetik, Soziolinguistika Klusterreko hizkuntza teknikaria den Olatz Bengoetxeak (2020) ere, D ereduak euskararen kaleko erabilera bultzatzeko izan duen eraginkortasuna zalantzan jartzen du. Gainera, ahozkoitasuna modu sistematikoan landu beharra azpimarratzen du, egoera komunikatiboak hobetsiz.

Beste zenbaitek euskalgintzak hartu izandako bidea eta ume zein nerabeei utzitako ondarea jartzen dute zalantzan. Sortu dugun plastikozko euskarak ez omen du hiztunaren oinarrizko premiak asebetetzeko balio (Joxerra Garzia, 2020).

Aurrez eskainitako datu horiek denak hainbat aldagaien menpe daude baina euskalgintzaren ahozkoitasunarekiko jarrera eta jokabideek eragina izan dute egungo hizkuntzaren egoeran. Kike Amonarrizek (2015) argi uzten du ahozkoitasunari, duela gutxi arte, ez zaiola beharrezko lekurik eman. Uste izan da ikasleek euskara ikasiz gero, kalean ere euskaraz egingo zutela eta, behin euskara formala eskuratuta, informalaz erraz jabetuko zirela.

Amonarrizen lanari segika, garai hartako euskararen beharrei erantzuna eman zitzaiola adierazten du eta eskolari dagozkion erronkak jartzen ditu mahai gainean:

1. Ikasleen euskararen ezagupena orokortu eta sendotzea.
2. Erabilera dinamikak sortu eta mailaz maila egonkortzea.
3. Eskolaren mugak gainditu eta erabilera eskolako hormetatik kanpo hedatzea.

Euskara ludikoa (Joxerra Garzia, 2015) izango litzateke erronka horiei erantzuteko bidea eta bertan kokatu genitzake bertso-jolasak. Alde horretatik, euskarazko jolasak eskaintzea, eta ez jolas euskaratuak, izan daiteke gakoetako bat Gotzon Barandiaranen (2020) ustez.

Ildo beretik, haurrak sentitzen duenari hitzak jartzen ikasi behar duela dio Juan Kruz Igerabidek (1993), bere emozioen adierazpide espresiboak erabiltzen. Besteen ekoizpenak entzun eta abesteak, esate baterako, hizkuntza poetikoa bereganatzeko

aukera eskaintzen dio haurrari, autorearentzat hizkuntzaren oinarriak esanguratsuena horretan datza, aurretik aipatutako plastikozko euskaratik urrun.

### **3.2. Behar sozialak eta dekolonialitatea**

Ahozkotasuna lantzeak ikasleari zenbait aukera eskainiko dizkio Aroa Murcianoren (2020) ustez, ahazkotasuna lantzeko arrazoi zenbait zerrendatzen dizkigularik: arrakasta akademiko eta sozialerako gaketzat jotzen du, eskolako curriculumak ikasteko baliabide ezinbestekotzat ulertzen du eta herritar autonomoak sortzeko tresna gisa.

Haatik, ahazkotasuna lantzeko aukera ez dago denon esku, ez modu berean. Hortaz, elebitasun kentzailea (Bilbao, 1998) kontuan hartuko dugu. Berori etorkinekin eta gutxiengo etnikoekin gertatzen ei da, euren ama-hizkuntza gutxitua aintzat ez hartzean eta eskolako hizkuntza ikastera derrigortuak izatean eman ohi da. Horrek euren ama-hizkuntzarekiko sentimendu ezkorrak garatzera bultzatu dezake norbanakoa, H1 hori galtzeraino. Hainbat dira prozesu horren ondorio negatiboak: linguistikoak, emozionalak, kognitiboak eta akademikoak.

Gurera etorrita, etorkinen kasuan, oro har, euskara ikasteko beharra ez da arrazoi ideologikoengatik edo lan arrazoiengatik iritsiko, bete ohi dituzten lan-postuek ez baitute hizkuntza-eskakizunik izaten. Euskal Herrian sozializatzeko bidea eskaintzen badie, bertako jendearekin haiek egiten duten hizkuntzan egin eta harremanak izateko baliabidea bazaie, esate baterako, sortuko da euskara ikasteko beharra haiengan. “Beraiek» izatetik «gu» izatera pasatzen ez diren bitartean ez zaizkie gure gauzak interesatuko guri interesatzen zaizkigun moduan” (Barquín eta Ruiz, 2009. 10. orrialdea).

Aldiz, Euskal Herrian eskolatzen diren etorkinen seme-alaben kasuan, euskara ezagutzea eskubidetzat ulertuta, (legedi bateratu baten faltan, teoriarik ondare gisa onartzen baita euskal lurralde osoan) adierazi genezake hainbat direla euskara ezagutu eta erabili dezaten mugatzen duten aldagaiak; euren kontrako diskriminazioaren beste arrazoi bat bihurtu daitekeena. Bai lan-munduratzetik begiratuta, baita gizarteratzetik ikusita ere.

Etorkinen seme-alaben kasuan edo, oro har, guraso ez-euskaldunen umeenean, hizkuntza poetiko batekin elikatzeak eta berori adierazteko erabiltzeak ere onura esanguratsuak izanen ditu haurrengan baina, aldi berean, ezinbestekoa izanen da erregistro hori euren H1ean ere jaso dezaten bultzatzea. Cummins-en

Elkarmenkotasunaren teoriak jasotzen duen moduan (Cummins, 1981; in Saioa Larraza, 2019), sakoneko eta azaleko gaitasunek osatzen dute hizkuntza. Komunikazio-gaitasunean datzan sakoneko gaitasun hori hizkuntzaren batean garatzeko beharra nabarmentzen du Cummins-ek, ondoren ikasiko diren hizkuntzetara transferentzia egon dadin. Alegia, ikasleak sakoneko gaitasuna ondo garatua badu bere ama-hizkuntzan, errazagoa egingo zaio eskolako hizkuntza ikastea (kasu honetan, euskara), sakoneko gaitasunaren transferentziari esker. Dena dela, transferentzia arrakastaz gauzatzeko, ezinbestekoa da hurrek eskolako hizkuntza erabiltzeko aukera errealak edukitzea eta horretaz gain, hizkuntza erabiltzeko nahikoa motibazioa sentitzea.

Hor nonbait egin dezakete bat euskalgintzak eta dekolonialitateak. Ezinbestekoa izanen delako etorkinen eta euren seme-alaben kultura eta hizkuntza kontuan hartzea, onartzea eta aitortzea kohesio sozialaren izenean bazterketarik edo zapalketarik eman ez dadin.

Identifikazio kolektiborako ezinbesteko aldagaia da hizkuntza. Hala ere, euren kulturaren ukaziotik asimilazioa baino ezingo genuke lortu eta asimilazioak ez dakar euskara ludikoaren garapenik. Euskara ludikoak hautua eskatzen du, ez inposizioa.

Horretarako kulturartekotasunaren gizarteratze ereduaz hitz egiten digu Xavier Besalú (2002), kultura aniztasunaren aitortza eta errespetuan oinarritzen den eredutzat jotzen baitu, gizarte anitza eta kohesionatua sortze aldera. 5 urteko gelara itzulita, ezinbestekoa izanen da familiaren parte-hartze aktiboa, proiektuak berak gelan egon daitezkeen kulturak kontuan hartuko baditu.

Enara Eizagirre, Edurne Urrestarazu eta Ekhi Zubiriak (2019) berresten dute bizipen pertsonalen menpe egonen dela euskara ikasteko beharra sentitzea edo ez, horiek norbanakoarekin batera aldatzen direla eta bakoitzaren errealitatea kontuan hartzea ezinbestekoa izanen dela.

Herrigintzari beste alderdi batetik helduta, Gotzon Barandiaranek (2020), kultur sorkuntzetan orokorrean eta musikan zehazki, ikusten du iruditeria euskaldundu eta euskaratzeko aukera. Aipatzen du kultura hegemonikoak ez daukala alderdi hori zaintzeko beharrik baina euskal kulturaren betebeharrak bat hori dela azpimarratzen du; herrigintzaren eta hizkuntzaren mesedetan.

### **3.3. *Pedagogia feministaren beharra***

Hezkuntza sistema ez da neutrala eta iruditeria patriarkala transmititzeko mekanismoetako bat da Irene Martínezen (2016) aburuz. Errealitate hori kontuan harturik pedagogia feministaren beharraz mintzo da, izateko, egoteko eta egiteko modu berriak eraiki ahal izateko eta iruditeria patriarkal horren normalizazio prozesuak zalantzan jarri eta berori desegiteko. Ildo beretik, egitura horretan daukagun lekuaz hausnartzen eta gure kontzientziak astintzen lagunduko liguke.

Nagore Iturriozek (2019) hezkidetzaren hurrengo pauso gisa ulertzen du pedagogia feminista baten sorrera, binarismoa, esentzialismoa eta pedagogia (jakintza objektiboaren bilaketan naturaltasunaren marko mugatzailea erabiltzeagatik) bera zalantzan jarriko dituen ikaste-irakaste ildoak. Curriculumaren alderdi androzentrikoak eta patriarkalak aldatzeko beharra aipatzen du autoreak, baita zapalkuntzen interseksionalitatea kontuan hartzekoa ere. Finean, hezkuntza-sistemak hauspotzen duen logika bitarra apurtzean jartzen du begirada.

Bertso-munduari dagokionez, Bertsolari aldizkaritik (2018) ateratako datuen arabera, beste arazo bat geneukake; errotikoa bezain gordina: oholtza gaineko emakume eta gizonen arteko parekidetasun eza, kuantitatiboki eta kualitatiboki neur litekeena. Izan ere, saioetako lau bertsolaritik bat izan ohi da emakumea 18 urtetik gorakoez ari bagara, 18 urteak arte, bestalde, nahiko parekidea izaten den gunea da bertso eskola bera. Estrukturaltzat ulertu genezakeen arazoak, ordea, ikusgai uzten du bertsolaritzaren mundu txikia zein maskulinoa den oraindik orain, zenbat lan dagoen egiteko. Ildo horretatik, pedagogia feministatik edatearen ideiak indarra hartzen du egoeraren irakurketa osoago bat egite aldera eta hurrengan eragiteko gaitasuna eskuratzeko ahaleginean. Ildo beretik, bertso-munduak muga nabarmenak ditu identitate eta orientazio sexual ezohikoak dituztenentzat, jendarteak dauzkan bezala.

Uxue Alberdik (2019) Lisiperen bosgarren alean emakume bertsolarien testigantzak bildu eta euren oholtza gaineko zein oholtza gaindiko jarduna mugatzen duten mekanismoak identifikatu eta zerrendatzeko baliatu izan ditu. Lehen aipatu bezala, umetan bertso-eskola gune nahiko parekidea den arren (zenbakiei begiratu gero behintzat), norgehiagoka eta lehiakortasuna zalantzan jartzeko une garrantzitsua izan daiteke 5 urteko gela. Autoreak bertsoaren irakurketa kuantitatiboak mugatu eta analisiaren esparrua hedatzea proposatzen du.

Txapelketako ereduaz gain, bertsolaritza adiskidetasunaren eta elkarrekiko errespetuaren ikuspuntutik ikustaraztea, sexu-genero bereizketarik ez egitea, bertsolari

onak eta txarrak egotearen ideia ez erreproduzitzea eta erreferente anitzak eskaintzea izan daitezke klabe batzuk. Gelako giro orokorrarekin bat egingo duen ideia izan beharko da halaber.

### **3.4. *Hizkuntzaren didaktika***

Hizkuntzaren funtzio nagusiak bi dira: funtzio soziala eta funtzio indibiduala (Vygotsky, 1934). Autoreak hizkuntzaren garapena eta pentsamenduarena lotu zituen, biak elkarrekiko zeinen beharrezkoak diren zehaztuz. Hala ere, hizkuntzaren funtzio soziala funtzio indibidualaren aurretik kokatu zuen garapenean; hizkuntzaren garapena komunikatzeko desiratik sortzen dela adieraziz. Behar indibiduala eta abstrakziorako gaitasuna geroago helduko direla zehaztuz. Horrek, hizkuntzaren didaktikako ikuspuntu komunikatiboa ekarriko du. Komunikatzen, azalpenak ematen, taldean hitz egiten, elkarriketak izaten, entzuten, argudiatzen, eztabaidatzen... ikasteak barruko hizkuntzaren garapenean izango duen eragina azpimarratzekoa da.

EHUko Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika saileko irakasle eta ikertzailea den Ainhoa Ezeizaren (2020) esanetan, gramatikaren irakaskuntzak, esate baterako, ez dauka komunikazio-gaitasunarekiko harremanik, ezagutza filologiko disekzionalaz mintzo da, datu horiek interesgarriak gerta daitezkeela onartu arren.

Hizkuntza helburu funtzional batekin ikasten dela adierazten digu Elizabeth Coelhok, (2005) ere; erabilerak dakarrela ikasketa. Horrela, hizkuntza ikasteko baldintza egokienak zerrendatzen dizkigu, bigarren hizkuntzari erreferentzia egin arren, lehenengo hizkuntza ikasteko baldintzak oso antzekoak direla zehaztuz.

Haurrari input egokia eskaini behar zaiola dio, aberatsa eta anitza, ulertuko ez duenaren beldurra alde batera utziz. Inputa jasotzen den hizkuntza da eta berorrek ezaugarri batzuk betetzen baditu kalitatezkoa dela esateko moduan gaude. Hizkuntza hobeto menderatzen dutenekin elkarreraginak onura handiak ekartzen dizkiola dio Coelhok (2005) eta haurraren garapena kontuan hartu beharraz hitz egiten du, haurraren erritmoa errespetatzeko nahiak indarra hartzen duelarik. Jarraian, testuinguruan kokatutako berbaldiak gomendatzen ditu, zeintzuetan haurra ez zuzentzen saiatuko garen, bere ekoizpena hedatu edo errepikapenean modu zuzena erabiliz. Hizkuntza-akatsak prozesuaren parte gisa ulertu beharraz ohartarazten gaitu.

Hortaz, nabarmena da dagokigun adinean, oro har, hizkuntzaren ikasketa eta hedapena ahozkotasanaren baitan gertatuko dena. Irakaslearen/hezitzailearen

betebeharra izango da komunikazio egoerak sortzen laguntzea, horiek gidatuko dituen figuratik aldenduz eta bidelagun papera hartuz.

### **3.5. Ahozkotasuna**

Aho-hizkuntza hezkuntzarako abiapuntu eta ezinbesteko bitarteko gisa ulertu behar da (Stubbs, 1984 apud Rodriguez, 1995). Alde horretatik, hezkuntza arautuan emango diren bertso-klaseez Mikel Artolak (2020), Bertsozale Elkarteko pedagogia batzordeko arduradunak, bertsolaritzaren transmisioa bermatzeko eta hezkuntza-sistemaren hutsune bat betetzeko ezinbestekoak direla dio. Hain zuzen, ahozkotasunaren inguruko hutsuneaz mintzo da. Hala ere, ikastetxe eta udaletxeen esku dagoela adierazten du; ez dagoela bermatua. Aipatu autorearen hitzetan, Haur Hezkuntzarako baliagarria zaigu bertso-gintza idatzizkotik pasa gabe ikasi daitekeelako.

#### **3.5.1. Ahozkotasunaren garapena**

Haurren gaitasun komunikatiboaz ari garenean, haurren arteko ezberdintasunak kontuan hartu behar dira, hainbat faktoreren menpekoak direnak: testuinguru sozio-ekonomikoa, bizipenak, umearen izaera, senitartekoekiko harremana... (Bigas, 2008). Hala ere, autore honek bereizketa aurkezten digu Haur Hezkuntzako etapan lehen eta bigarren zikloaren artean. Gure proposamenak bigarren zikloko azken ikasturtearekin lotura daukanez, hori zehaztera joko dugu.

EHUko Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren saileko irakaslea den Urtzi Regueroren (2020) esanetan, 5 urterekin, jolas sinbolikoetan, hizkuntza erabiliz rolak banatzeko gai dira haurrak oro har, jolas arautuen arauak eztabaidatzeko eta testuingurutik kanpo hitz egiteko ere bai. Testuingurutik kanpo hitz egin ahal izateak istorioak kontatzen eta iraganeko gertakariak antolatzen laguntzen die. Horiek lehen ahozko sorkuntzak gerta daitezen beharrezko ezaugarritzat uler genitzake.

Gainera, autore beraren apunteetan ikusi dezakegunez, 5 urterekin haurrak hizketaren sekuentzia fonikoaz arduratzen hasiak dira eta silabak bereizten ikasten du. Hori puntu garrantzitsua izanen da proposamen honen baitan.

#### **3.5.2. Ahozkotasunaren didaktika**

Gizarteak eta, hortaz, hezkuntzak balio handiagoa eman izan dio idatzizko hizkuntzari orain dela gutxi arte. Dena den, gero eta gehiago nabarmendu da ahozketasuna lantzearen garrantzia, batik bat 0-6 urte artean (Bigas, 1996). Etapa horretan ezinbestekoa da ahozketasuna berariaz lantzea, hitz egiten ikasteaz gain entzuketa aktiboa garatzeko, zenbait eduki landu ahal izateko, arazoak ebazten ikasteko, abstrakzioa eta kontzeptualizazioa garatzeko, sozializatzeko eta garapen integral baten oinarri diren beste zenbait gaitasun eskuratzeko.

Joxerra Garziak (2020) ere ahozketasuna modu egoki eta zuzenean, nahitasunez, landuko duen eskola eredu berri baten premia nabarmentzen du. Orain arteko eskola ereduarentzat ikasle ideala ikasle mutua dela kritikatzeko duelarik. Bere hitzetan, ume eta gazteei eskolatik eman behar diegu hizkuntza bizi eta aldagarria, haiek euren beharretara moldatu edo horien arabera manipulatu, aldatu eta garatu dezaten.

Garziaren ildo beretik, María José del Ríok (1993) ere ahozketasunaren alderdi batzuk hezkuntza formalean landu behar direla dio; ahozketasunaren irakaskuntza inplizitu eta esplizituaren arteko oreka batez mintzo da. Inplizituaren kasuan eskolako testuinguruan ezein interakzio egokia izan daitekeela azpimarratzen du, metodologiak haurra hitz egitera bultzatu beharko lukeenez oroitaraziz eta irakasleen prestaketa beharrez ohartaraziz.

Horretan sakonduz, Montserrat Bigasek (2008) dio eskolak ahozketasuna lantzean kontuan hartu behar lukeela, ordura arteko haurren ahozketasunaren lanketa elkarrizketa bidez burutu dela, zeinetan ez den behar testuingurua definitzea, berori hizketakidearekin konpartitzen delako. Hurrei ahozketasuna lantzeko idatzizko hizkuntzaren ezaugarriak eskatzea hanka-sartzea dela nabarmentzen du, esate baterako: testuinguruz kanpoko hizkuntza garatua, egitura gramatikal konplexuak, euren bizipenetatik urruntzen diren gaiak, abstrakzioa...

Ezeizaren (2020) esanetan, kontuan hartu behar dugu ahozketasuna ez dela idazmena baino sinpleagoa; gramatika berezia duela. Eraikitze kolektiboan oinarritzen dela zehazten du, bat-bateketasunari lotua dagoela eta ariketa enpatiko zein parte-hartzaileak eskatzen dituela. Oinarrian, adierazten du ahozketasuna garatzeko egoerak ezin direla simulatu, naturalak behar dutela. Autore berak hitz egiten digu ingeniari linguistikoaren ereduaz eta bere arriskuez, ikusmira komunikatiboaren alde kokatzen delarik.

Ahozketasuna ikasteko inputa garrantzitsua da, kantitate eta kalitate aldetik (Reguero, 2020). Inputa jasotzen den hizkuntza da eta berorrek ezaugarri batzuk betetzen baditu

kalitatezkoa dela esateko moduan gaude. Horretarako aldagai pragmatikoak, sintaktikoak, semantikoak eta fonologikoak hartu behar ditugu kontuan. Kalitatezko ereduak eskaintzea izanen da, hortaz, hezitzailearen zeregina.

Halaber, ahozko hizkuntza gaitasunak hobetzeko estrategien artean leudeke honakoak: pragmatikoak eta linguistikoak. Pragmatikoen kasuan helburua testuinguru afektiboki segurua sortzea da, haur guztiei hitz egiteko aukera eskaintzen zaiela bermatzea, gogoeta metalinguistikoak bultzatzea eta, zenbait kasutan, hizkuntza-adierazpena indartzea. Aldiz, linguistikoei begira, eredu egokia ematea, forma zuzen eta egokiak eskaintzea eta haurren forma linguistikoak hedatzea lirateke esanguratsuenak. Errazagoa izan liteke alderdi horiei kasu ematea behaketa jarrera batetik ariko bagina (Reguero, 2020).

Berbaldi-gaitasunak beste komunikazio-azpigaitasunen garapena dakar ezinbestean: gramatika-gaitasuna, gaitasun soziolinguistikoa eta gaitasun estrategikoa (Ruiz, 2010). Hortaz, haurren kasuan, ahozko testuen produkzioa izanen da komunikazio-gaitasuna garatzeko bide esanguratsua. Gainera, gogoeta metalinguistikoaren garrantziaz ohartarazi ondoren, horiek gerta daitezkeen hizkuntzaren barne-manipulazioa beharrezkoa dela azpimarratzen digu.

### **3.5.3. Bertso-jolasak**

Barne-manipulazio horrek forma ugari hartu ditzake baina denak izanen dira sormen-arietak. Sortzaileak jolasa mantentzeko, fintzeko edo errazteko baliabideak bilatuko ditu eta, bilatu nahi horri jakin-mina deitu geniezaioke.

Sorkuntzak hizkuntzaren bizitasuna dakar eta antzerkia da horretarako bitarteko ideala (Hirigoyen, 2020). Antzerkitik haratago, ordea, ezein kultur sorkuntzek, gozamina tarteko eta sentimenduak adierazteko bide emanez, hizkuntza ikasi eta barneratzeko abagunea eskaintzen du. Hain zuzen, idatzizko eskolako ereduaren aurrean aukera bilakatzen dira eta, hortaz, Haur Hezkuntzako gunera bidera genitzake.

Jolasa HHko umeen lehengai da eta hainbat onura dakarzkie garapenaren esparru ezberdinetan: afektibotasuna, motrizitatea, inteligentzia, sormena eta soziabilitatea (Solís, 2019). Jolasak forma ezberdinak hartu ditzake eta, maiz, inork baldintzatu gabe ere, haurrek berek hitzekin jolastea bilatzen dute.

Mikel Artolak (2020) bertsoak berezko duen asmo komunikatiboa azpimarratzen du eta kultur sorkuntza ezberdinak uztartuko dituen eskola baten beharra eta egingarritasuna



aldarrikatu. Eskola horrek haurren jakin-minak kontuan hartuko lituzke, kultur sorkuntzak haurrei egokituz eta baliabideak eskura jarriz, materialak eskainiko lituzke eta teknikak proposatu, betiere jolasa erdigunean ezarrita.

Errimen eta abestien erregulartasunari erreparatzeak kontzientzia fonologikoa garatzeari eta segmentazioari laguntzen dio (Ruiz, 2010). Hizkuntzaren barne-manipulazioaren eraginez gogoeta metalinguistikoak gertatzen dira. Hori jolas moduan ere gerta daiteke eta aldamiajea eskatuko du plano fonikoan, sintaktikoan, semantikoan eta pragmatikoan.

#### **4. HHko CURRICULUMAREN AZTERKETA**

Proposamena modu esanguratsuan baldintzatzen duten curriculumeko alderdiak identifikatu eta aztertzeko saiakera izanen da honakoa. Hainbat izan litezke atal honetan aipatzekoak baina modu zuzenean esanguratsuak direnak bahetuko dira. Bestalde, Euskal Herriko curriculum ezberdinen irakurketa bateratu batek izugarrizko lana eskatuko lukeenez, graduan zehar gehien landu dugunaren azterketa egitea izanen da datozen lerroetako lana. Deigarria gerta liteke, dena den, Euskal Herriko Unibertsitateak EAEko curriculumari eskaintzen dion tartea, Nafarroako curriculumari, Euskal Curriculumari edo Ipar Euskal Herrian ezarritako frantziar estatuko curriculumari eskaintzen dion tartearekin alderatzea.

Haur Hezkuntzako curriculumuma xedatzen duen abenduaren 22ko 237/2015 dekretua izanen da, hortaz, kontuan hartuko duguna. Xedapenaren 3.artikuluak Haur Hezkuntzaren xedea definitzen du, lehenengo puntuan haur guztien garapen osoa eta orekatua lortzeko helburua egotziz. Gure proposamenari begira, garapen integral horren baitan kokatzen dira ahozkotasanaren lanketa eta proposamenaren izaera ludikoa. Horiek, hain zuzen, haurrek egunerokoan eskuragarri izanen dituzten proposamenen alderdietako bat beteko baitute. Artikulu berean, bigarren puntuko c atalean, EAEko bi hizkuntza ofizialen arteko elebitasun orekatua lortzeko baldintzak landu eta sustatzeaz hitz egiten da, diglosia egoera batean lortzen oso zaila den helburua dena aitortu gabe.

8.artikuluko bigarren puntua gaitasunen arabera pedagogiaren ezaugarriez mintzo da, horren arabera helburua ez ei da informazioen eta ezagutzen transmisioa, oinarrizko gaitasunak eskuratzea baizik. Ideia horrek indarra ematen dio proposamen honetan aurkeztuko den metodologiarekin, haurren autonomia eta jakin-minak kontuan hartzea ezinbestekoa izango baita gaitasun horien lanketarako. Hein handi batean,

idea honek informazioari berari lekua kentzen dio, prozesuaren mesedetan; hain zuzen, proposamenak bilatzen duena. Hala ere, dokumentuan aurrera jarraituz gero, dekretuak hezitzaileari bidaide papera baino, gidari papera aitortzen dio. Horrek zalantzan jartzen du haurra erdigunean jartzearen ikuspuntua eta, hortaz, metodologia bera.

10.artikuluak hizkuntzaren trataerari egiten dio erreferentzia, erabilera jartzen da irakaspenaren (ikaspena egokiagoa litzatekeelakoan gaude) beharrezko printzipio gisa, ikuspuntu komunikatiboarekin bat eginez. Horrek erakusten du, komunikazioa erdigunean jarriz, egoera irrealak eta laborategietako elkarrizketak atzean utzi dituela hizkuntzaren didaktikak. Deigarria da artikulua azken atalean, hizkuntzekiko jarrera positiboa sustatzeaz aritzean, orokortasunetik aritzea. Nolabait, hizkuntzen arteko ezberdintasunak euren barne-ezaugarrien arabera koak bailiran, kanpo-faktoreak ahantziz. Esate baterako, haurrek gaztelaraz egin dezaten eta euskaraz egin dezaten lortzeko egin beharreko lanak berdina bailitza.

17.artikuluak ikastetxeen Hizkuntza Proiektuaz ari zaigu, ikastetxe bakoitzak berea sortzeko eta egokitzeko aukera daukala adieraziz. Ikasleen beharretara doitzeko aukera ezinbestekoa da eta Hizkuntza Proiektu propioak eskaintzen du hori. Hala eta guztiz ere, ikasleen etxeko hizkuntza kontuan hartu beharra, esate baterako, ikastetxeko uneko arduradunen esku egongo den langaia izatea arriskutsua izan liteke. Esan genezake, hortaz, muga gorri zenbaiten falta sumatzen dela dokumentuan.

Bukatze aldera, 24.artikulua baitan antzeko gabezia ikusi genezake, berandu eskolatutako ikasleen eskolazte-hizkuntzen aferari heltzean ez baita kontuan hartzen haur horien komunikazio-gaitasuna bere osotasunean. Interesgarriak gerta litezkeen errefortzu klaseetatik haratago, haur horiek euren ama-hizkuntzan daukaten maila eta jarrera neurtzea eta balioztatzea komenigarria litzatekeelakoan gaude.

#### **4.1. Curriculumarekiko lotura**

Curriculumaren markoaren azaleko azterketa bukatuta, gure proposamenak garatuko lituzkeen gaitasunak, beteko lituzkeen helburuak eta landuko lituzkeen edukiak zerrendatzera jo dezagun. Horretarako, zeharka landu litezkeen curriculumaren zenbait alderdi albo batera utzi eta modu zuzenean lantzen direnak aipatuko ditugu bakarrik.

OINARRIZKO GAITASUNAK:

**Oinarrizko zehar-gaitasun** hauek landuko dituzte haurrek:

- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
- Elkarbizitzarako gaitasuna.

**Oinarrizko gaitasun espezifiko** hauek landuko dituzte:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna.
- Arterako gaitasuna.

## **1. NORTASUNAREN ERAIKUNTZAREN ETA INGURUNE FISIKO ETA SOZIALAREN EZAGUERAREN EREMUA:**

### **ETAPAKO HELBURUAK**

**3)** Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatze-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.

**4)** Ekimenak abiatzea eta norberaren ekintzak planifikatzea eta sekuentziatzea, egiteko errazak edo arazo-egoerak ebazteko eta nor bere buruaren gaineko konfiantza-sentimendua handitzeko; frustrazio txikiak onartzea, sortzen zaizkion zailtasunak gaintzeko jarrera adieraztea eta gainerako pertsonengandik behar den laguntza bilatzea.

**5)** Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea, norberaren jokabidea erregulatu eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrietara egokitzeko, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea.

**10)** Hurbilean zer gizarte talde dituen jakitea eta haiengana, haien kultura-ekoizpenetara, balioetara eta bizimoduetara jarrera irekiz gerturatzea, konfiantza, errespetu eta balioespeneko jarrerak lantzeko.

**12)** Haurraren bizi-ingurunean egiten diren bertako eta kanpoko festak, tradizioak eta ohiturak ezagutzea eta haietan parte hartzea, haiekin gozatu eta nortasun-zeinu diren aldetik balioesteko

### **EDUKIAK**

Eduki komunak: Hauek izanen dira bi eremuetan landuko diren edukiak.

- Ideiak sortu eta adieraztea.
- Zereginak eta proiektuak planifikatzea eta aztertzea.

- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Gorputza eta emozioak autoerregulatzea.

Bigarren zikloko edukiak:

### 2. MULTZOA. Hartu-emanak gizarte-ingurunean

- Gainerako pertsonen nortasuna eta ezaugarriak onartzea, diferentziak errespetatzea eta diskriminazio-jarrerak baztertzea.
- Norberak egiten dituen eta ingurunean egiten diren jarduera soziokulturalak balioestea eta horietan parte hartzea; norberaren nortasun-zeinuetako batzuk ezagutzea.

## **EBALUAZIO-IRIZPIDE ETA EBALUAZIO-ADIERAZLEAK**

4) Jolasetan parte hartzea, eta, parte-hartze horretan, gero eta gehiago erregulatzea sentimenduen eta emozioen adierazpena.

- Jolasetan eta taldearen proposamenetan gogoz parte hartzen eta laguntzen du.
- Jolas simple batzuen arauak onartzen eta betetzen ditu.
- Sentikorra da gainerako pertsonen aldaratearekin, interesekin eta gogoarekin.
- Arian-arian, sumisio eta nagusikeriazko jarrerak baztertzen ditu.

9) Gizarte-ingurunea ezagutzeko jakin-mina adieraztea, erreferentziazko gizarte taldeetan gogoz parte hartuta.

- Kide den gizarte taldeen ezaugarriak ezagutzen ditu.
- Gizarteko hartu-emanetan parte hartzen du, kortesiazko arau batzuk (agurtzea, hitz egiten duenari begiratzea, txandari itxarotea, etab.) beteta.
- Elkarbizitzarako arau batzuk ezartzea beharrezkoa dela jakitea.
- Askotariko tradizio kulturalen jardueretan parte hartzen du eta haien ezaugarrietako batzuk ezagutzen ditu.
- Ezagutzen ditu ingurunean egiten diren kultura-adierazpen batzuk

## **2. NORTASUNAREN ERAIKUNTZAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN ETA ADIERAZPENAREN EREMUA ETAPAKO HELBURUAK**

- 1) Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.
- 2) Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatzea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrianak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko.
- 3) Ahozko hizkuntza arian-arian erabiltzea eta balioestea norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatzeko.
- 5) Hizkuntza ofizialetan eta inguruneko hizkuntza askotarikoetan komunikatzeko jarrera irekia izatea, beste errealitate eta kultura batzuk deskubritu eta errespetatzeko.
- 7) Hainbat kultura-tradiziotako testu batzuk ulertzea, azaltzea eta moldatzea, haiekiko interesa izateko, haiek balioesteko eta haiekin gozatzeko.
- 10) Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilia, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.

## EDUKIAK

Bigarren zikloko edukiak

### 1. MULTZOA. *Hitzezko eta idatzizko komunikazioa*

- Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab.
- Informazio, beharrian, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea eguneroko bizitzako egoeretan.
- Ahozko adierazpenetan, gero eta egokitasun handiagoz erabiltzea lexikoa, sintaxi-egiturak, intonazioa, keinuak eta ahoskatzea.
- Ahozko hizkuntza komunikaziorako eta norberaren eta gainerako pertsonen portaera erregulatzeko bitartekoa dela jakitea eta balioestea.
- Sormena adieraztea hizkuntzaren ahozko erabilera egiten duten jolasetan, ondo pasatu eta ikasteko.
- Hizkuntzak eta dialektoak erabiltzeko interesa izatea eta haiek begirunez begiratzea.

### 4. MULTZOA. *Arte-komunikazioko beste modu batzuk*

- Proiektu kolektiboak egiten parte hartzea eta inguruneko arte-ekoizpenen gaineko interesa izatea.
- Arteko trebetasun eta teknika oinarrizkoak erabiltzen hastea.
- Arte-adierazpenak baliatuz adieraztea eta komunikatzea gertakariak, sentimenduak, emozioak, bizipenak eta ametsak.
- Soinu eta erritmo errazak sortzea melodiak edo beste elementu batzuk (testuak, irudiak, etab.) interpretatzeko.
- Folklorea eta kultura-inguruneko beste arte-adierazpen batzuk balioestea eta haiekiko interesa izatea.
- Ikus-entzunezko bitartekoetatik igortzen diren mezuak interpretatzen hastea eta haien bidez mezuak igortzen hastea.

## **EBALUAZIO-IRIZPIDE ETA ADIERAZLEAK**

**1)** Askotariko hizkuntzak erabiltzea sentrazioak, emozioak, beharrizanak eta gogoak ezagutu, adierazi eta, arian-arian, erregulatzeko.

- Sentimenduak eta emozioak ezagutzeko eta bereizteko bidea egitea.
- Laguntza eskatzen du beharrizanak eta bere gogoak asetzeko.
- Askotariko komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu (hitzezkoak, gorputzaren erabilera, musika, etab.) bere beharrizanak, emozioak, bizipenak, sentrazioak eta gogoak adierazteko.
- Gero eta adierazpen agerikoagoak eta egokiagoak egiten ditu bere beharrizanak, sentrazioak eta gogoak azaltzeko.
- Arian-arian, harremanak egiten ditu bere gogo-aldarteen eta aldarte horien arrazioen eta ondorioen artean.

**2)** Ahozko hizkuntza erabiltzea bere adinekoekin eta pertsona helduekin harremanak dituenean, komunikazio-xedeak aintzat hartuta eta entzuteko jarrera arretatsua eta errespetuzkoa izanda.

- Ahozko hizkuntza erabiltzen du egoera askotan eta solaskide ugariarekin komunikatzeko, gizarte-arau batzuk betez (besteari entzunez, solaskideari begiraturaz, hitz egiteko txanda betez, etab.).
- Gogoz entzuten ahozko testu askotarikoak (mezuak, kontakizunak, literatura-ekoizpenak, deskribapenak, azalpenak, informazioak, etab.), eta ulertu egiten ditu.

- Ahozko hizkuntza darabilten jardueretan parte hartzen du: asmakizunak asmatzen, olerkiak ozen irakurtzen, hitz-segidak errepikatzen, ipuinen amaierak aurreratzen, eta antzekoak egiten.
- Galderak egiten ditu gauzak hobetzeko ulertzeko.
- Eguneroko bizitzako gertakariak eta bizipenak gero eta ordena egokiagoan azaltzen ditu.

**6)** Artearen, teknologiaren eta ikus-entzunezkoen bitartekoak, materialak eta teknikak erabiliz adieraztea eta komunikatzea, eta haien aukerak arakatzeko interesa adieraztea, haiekin egiten direnak gozatzeko eta gainerako pertsonekin bizipen estetikoak eta komunikazioak konpartitzeko.

- Gorputzaren, musikaren, teknologiaren eta ikus-entzunezkoen hizkuntzak eta plastikaren material, tresna eta tekniken adierazpen-ahalmenak probatzen eta esploratzen ditu.
- Musikako, gorputz-adierazpeneko eta/edo adierazpen plastikoko jardueretan parte hartzen du, banaka nahiz taldean.
- Gogoz eta arretaz begiratzen ditu askotariko kultura-adierazpenak eta gainerako pertsonen egindako kultura-ekoizpenak.

Horrenbestez, curriculumarekiko lotura osatutzat jo genezake baina are esanguratsuagoak izanen dira, proposamenaren balioa neurtze aldera, eskainiko den baliabide bakoitzaren baitako helburuen, edukien eta gaitasunen xedatzea. Aldi berean, horiek izanen dira ebaluazioaren ildo osatzeko kontuan hartu beharreko lorpen-adierazleen oinarria. Proposamenaren baitako baliabide bakoitzarekin lortu nahi duguna definituko dugu, hortaz, datozen puntuetan. Hala ere, lehenik eta behin, ildo metodologikoa definitzeko lana hartzea komenigarria litzateke, horrekin, baliabideek bete beharreko ezaugarri batzuk zehaztuko ditugularik.

## 5. METODOLOGIA

EAEko curriculumari so, ohartu gintezke ikasteko testuinguruaz hitz egiten dela, irakaspenez baino. Esan liteke eredu magistozentrikotik aldentzen doan ildo pedagogikoak indarra hartu duela, bederen, politikoki zuzena bilakatzeraino. Hala ere, prozesuaren protagonista haurra bihurtzerainoko bidea luzea da oraindik. Bide

horretan, modu xumean eta gai konkretu bati lotuta, pauso txiki bat ematea izango da proposamen honen asmoetako bat.

Proposamenak iradoki egin behar du, eskaini, ez behartu. Bost urteko gela batean materiala eskuragarri jarriko zaie hurrei, hizketagaiak proposatuko zaizkie, baliabide tekniko eta teknologikoak eskainiko zaizkie. Haiek euren gogoaren, beharraren eta jakin-minaren arabera modu autonomoan erabiliko dituzte. Jolasari eta jarduera aktiboari emanen zaio lehentasuna, akatsak prozesuaren parte gisa ulertuz, erronkak eskainiko zaizkie eta haien ikerketa autonomoari merezi duen garrantzia emanen zaio.

Dena den, Hik Hasik (2015) autonomiaren inguruan argitaratutako artikulu batean, Xabier Tapiak diosku autonomia ez dela izanen hainbeste hurrek euren kabuz egiten jakitea, gehiago izanen dela euren barne-prozeduren metaketa, prozesu psikikoa. Horrek bultzatuko ditu erabakiak hartzera, euren ekintzak doitzera, euren plazer eta gogoen bilaketa autogestionatzera, laguntza eskatzera edo euren kabuz pentsatzera. Aukeratzeko eta okertzeko autonomiak sortuko du autonomia oso eta handiagoa.

Artikulu berean, Myrtha Choklerrek autonomia gai izatearen barne-sentimendua edukitzea dela dio, egin nahi dena aukeratzeko gai izatea, erronka berrien aurrean irrika sentitzea eta norbere auto-ebaluazioa eta egoeraren ebaluazioa egiteko gaitasuna izatea.

Uri Ruiz Bikandik (2010), bere aldetik, irakasleak ikasleen ekoizpenaren gaineko kontrola haiei pasatzen joan behar zaiela esaten digu, pixkanaka ekoizle autonomoak izaten uzteraino. Hezitzailearen eredu-zereginaz hitz egiten digu, gidaritzaren ideia baztertuta. Horrek erakusten digu zein izango den hezitzailearen rola, testuinguru egokia eraiki beharko du hurrei aukera anitzak eskaini ahal izateko, autonomia gara dezaten beharrezko ziurtasuna eta baliabideak eskainiz. Baliabideak proposatu egingo ditu, haur bakoitzaren prozesua modu indibidualean behatuko du eta dokumentatu egiten du.

Kapitulu berean, autoreak ahozkoatasuna lantzean espazioa zehaztearen garrantziaz hitz egiten digu. Testuingurua finkatze aldera proposatzen duelakoan, 5 urteko gelan bertso-jolasetarako espazioaren sorrerak indarra hartzen du.

Xabier Amurizak (2003) argi utzi zuen euskalkiek berezko zirrara sortzen zutela haurrengan, haiei gertukoak bazitzaien bederen. Hortaz, zehaztuko genuke, ahal den kasuetan, irakaslea eroso sentituko bada, hurrekiko proposamen hau euskalkian egingo dela.



Horrekin lotuta, hezkuntza-komunitatearen parte hartzea ere funtsezko afera izanen da proposamen honen baitan. Gertukoa izango zaion erreferentea eskainiko zaio haurrari, hizkuntzarekin, ahazkotasunarekin, hitz-jolasekin, bertsoekin... izandako harremanaren inguruan hitz egitera hurbilduko zaiena, bere ekoizpenak aurkeztera joanen dena edo bere bizipenak kontatuko dizkiena. Izan liteke haurren baten senideren bat, herrikideren bat, inguruko bertsolariren bat...

Alfredo Hoyuelosen gidaritzapean Sakanako Eskola Txikiek eraikitako Dumas proiektua (2016) hurbiletik ezagutu ahal izateak eman dezakeen ikusmirari jarraiki, lanerako beste zenbait moduren baliagarritasuna edo zilegitasuna zalantzan jarri nahi izan gabe, haurra prozesuaren protagonista bilakatzeko saiakera izango da honakoa. Haurrak erabakiko du non, nola eta norekin jolastu, zein proiektutan murgildu, eskaintzen zaion materiala nola eta zertarako erabili. Finean, haurrak edozer ikasi ahal izateko prest egon beharra daukala onartuko dugu eta, logika berari jarraiki, berak jakinen duela inork baino hobeki noiz egongo den prest.

Metodologiatik kanpo geratu diren zenbait lanerako irizpide aurkitu daitezke proposamenaren 1. eranskinean. Horiek kontuan hartzekoak izanen lirateke lan hau praktikara eramanez nahiko lukeen HHko maisu-maistrarik balego.

### **5.1. Baliabideen proposamena**

Haurrei materiala aurkezteko eguneroko bilkura edo asanblada erabiliko da, euren eguneroko erritmoa ez oztotatzearren. Ez da inor derrigortuko azalpenen edo aurkezpenen unean bertan egotera, besteenganako errespetuak markatuko ditu mugak. Beste baliabide esanguratsu bat elkarrizketena izanen da, hizketagaiak eskainiko dira eta elkarrizketaren noranzkoa ez baldintzatzen saiatuko da hezitzailea. Elkarrizketak planteatzen kontuan hartu beharko ditu etorkinen seme-alaben H1ak, galdetuz, aipatuz, ezagutuz... Bertsoak hartzen dituen forma ezberdinez hitz egiterakoan ere norgehiagokan ez erortzeko saiakera egingen da.

Materiala ordena eta estetika zainduarekin eskainiko da, gelako estetika orokorrarekin bat eginez. Jarraian, zein asmorekin sortu dugun eta espazioari edo materialari lotutako arauak argi finkatuko ditugu. Materiala ezingo da espazio horretatik atera, aurkitu dugun bezalaxe utzi beharko da jolastu ondoren, zaindu egin beharko da, besteen ekoizpenak errespetatu beharko dira... Ziurrenik, gelako ohiko arauetatik oso gertu egonen diren betebeharrak.

## **5.2.        *Espazioaren diseinua***

Espazioa sortzea ez da muga fisiko batzuk markatzera mugatuko, horrek ere lagunduko duen arren. Bertan aurkituko den materiala zehaztuko da, zenbatentzako espazioa izango den, zein arau izango dituen, funtzio bakarra beteko ote duen, egun osoan zehar zabalik egongo ote den... Gelaren, taldearen eta espazioaren arabera aldatzen joanen dira zenbait ezaugarri; hori ezinbestekoa izanen da, alde batetik, aniztasunari erantzuteko eta, bestetik, haurren berezko jakin-min eta egoerari doitutako espazioa izan dadin.

Kontuan hartu beharko da espazio seguru baten sorreraz ari garela, fisikoki eta emozionalki haurrak zainduko dituen espazioa. Euren jakin-mina eta behar emozionalak kontuan hartuko dituen, euren garapenera doitu dena eta behar oro asebetetzeko baliabideak eskainiko dizkiena.

Hizkuntza unean uneko beharrei erantzunez ikasi behar da, behar horiek ezin dira aurrez antolatu eta gelan erreproduzitu, antzestu (Igerabide, 1993). Hori dela eta, haurren eguneroko erritmoa errespetatu eta materiala une horretan prest dagoenak baliatu dezan aurkezteak irudi lezake proiektu honen alderdirik esanguratsuenak.

Horrenbestez, espazioaren protagonismoa aldatzen joan liteke eta beharrezko moldaketak proposatzen jakin beharko genuke, dena, umeen martxa errespetatze aldera.

Heike Freirek (2015) lana-plazera dikotomia apurtzearen aldeko apustua proposatzen du, haurrak erabaki dezala noiz egin nahi duen zer. Horregatik, espaziora hurbiltzea hautazkoa izanen da uneoro, ikasi nahia eta jakin-mina haurraren berezko ezaugarritzat ulertuta, ez da horren zaila justifikatzen.

Ezinbestekoa izanen da espazio honen (eta bertan gara litezkeen gaitasunen) eta beste batzuen arteko hierarkizaziorik ez gertatzea, haurren erabakiak libreak direla ziurtatzeko. Ez ditugu haurrak beste espazio batzuetatik hona bidaliko ezta alderantziz ere, euren auto-erregulazioan sinetsiko badugu. Gerta liteke itsu-itsuan espazio honetan ordu pila emanen duen haurren bat egotea, beste espazioetan gerta litekeen bezala; hori onartu egin beharko dugu eta esku-hartzeak mugatzen ikasi.

### **5.3. Denboraren antolaketa**

Irakasle/hezitzailea astean behin sartuko da gelan gutxienez eta bi saio emango ditu haurrekin. Aurretik espazioa tutorearekin adostu eta egokitzeak prestaketa lan bat eskatuko du, haurren senideek parte hartu lezake hasierako prozesu horretan. Hamabost astez luzatu liteke proposamena irakaslearen esku-hartzeekin baina, ondoren ere, espazioa gelan gera liteke.

Hasieran, haurrak ezagutze aldera, taldean sartzeko aukera errazteko, hezitzailea hiru egun jarraian etortzea hobetsi genezake, proposamenaren espazioa sortu baino lehen. Tutorea ezagutu lezake, haurrak eta euren familiak, eskola, gela, taldea, beste langileak... Eskolako komunitatearen parte izateko aukera eskainiko lioke eta haurren arreta errazago bereganatzekoa.

Behin hasierako egunak pasata, aste baten bueltan berriz itzuliko litzateke hezitzailea gelara eta tarte horretan espazioaren diseinuaren nondik norakoak zehaztu ondoren, proposamenaren alderdi nagusia abiatuko luke. Materiala prest, espazioa sortuta, haurren sarrera orduan gelan egon liteke tutorearekin batera hasieran, gero tutorearen figura desagertzen joan litekeen arren.

Lehen egunean materiala, espazioa, bere arauak, eta aukerak aurkeztu litzake, haurren jakin-mina eta harridura aprobetxatuz. Gero, elkarrizketak abia litzake, hurrengo egunetan edo materiala erabiltzeko aukera eta teknikak eskaini. Egutegia mugatua baino, iradokizuna izango da, ezingo da gelaren eta haurren erritmoa ahantzi berori betetzearen izenean.

Dena den, argi eduki behar da azalpen horren jarraipena hautazkoa izango dela eta ezingo dela denboran gehiegi luzatu, interesa mantentze aldera. Ez da inor derrigortuko azalpenak une jakin batean jasotzera, agian, horiek errepikatzea tokatuko delarik.

Hortik aurrera, hurrengo asteetan barrena, behaketa lana eta esku-hartze mugatuak izanen dira hezitzailearen lana, eredu linguistikoak eta zeharkako zuzenketak ahaztu gabe. Behaketa lanak baldintzatuko ditu eskainiko diren baliabideen inguruko lanketak, moldaketak eta eskaintza berriak.

#### **5.4. Irakaslearen/hezitzailearen profila eta rola**

Gelan astean bi saio emanagatik ere, LHn bertsolaritza eskaintzen duen irakaslea izan liteke, hurrek maiz ikusi lezaketena. Eskolako komunitatearen parte izango da eta interesgarria izan liteke beste irakasleekin elkarlanean aritzea.

Aproposena bertsoarekin lotura daukan pertsona bat izatea litzateke, gai dena bat-batean koplaren bat osatzeko, oinarrizko doinutegia ezagutzen duena, interes propioz gaia landu duena finean. Bertsozale elkarteak hezkuntza arautuan dauzkan langileak datozkigu burura baina, bertsozalea den ezein hezitzailek landu lezake proposamena.

Hala ere, gerta liteke eskolak ahozketasunaren lanketan sakonduko duen proposamena abiatu nahi izatea eta, hizkuntzaren didaktikaren oinarriak kontuan hartuz, landu beharreko alderdiak zehaztearekin batera, horiek lantzeko materiala sortu nahi izatea. Agian hurbilago egon liteke kantagintzatik, antzerkigintzatik edo beste kultur sorkuntza batetik baina, oinarrian, antzeko proposamena izan liteke.

Rolari dagokionez, haurra entzutea egokituko zaio hezitzaileari; errespetuzko eta maitasunezko jarrerak izatea eta adieraztea. Zaintzaile rola ere ukatu ezingo den alderdia izango da, ezinbestekoa hurrekiko harremana egonkortu eta haiei segurtasuna eskaintzeko. Zaintza horren barruan denen ongizatea bermatu dadin mugak argi adieraziko dira, limiteak zehaztuz eta justifikatuz. Ahal denean, eta argi izanda batzuetan ezin izango dela, arauak taldean adosteko saiakera egingen du.

Bestalde, hezitzaileari hizkuntzaren jabeakuntza-prozesua ezagutu eta errespetatzea dagokio; prozesu luzea dena ulertzea komeni da. Input egokia eskaintzea ezinbestekoa izanen da eta output-ean eragiteko estrategiak baliatzea, eredu-izaera hartzea. Bidelagunaren figurak bidean lagundu behar du, gidarizatik urrunduz, errespetuz, goxotasunez eta maitasunez. Ez da egongo horretarako beste modurik, aldamiaje lana ezinbestekoa izango baita. Aldamiajeak haurren ekoizpenak eta saiakerak balorean jartzea eskatuko du, haurra gehiago sortzera eta hitz egitera bultzatuko duena.

Nahiko modu errazean gerta liteke, testuinguruaren arabera, hurrek gazteleraz edo beste hizkuntzaren batean jolasteko joera izatea. Kasuak kasu, kontu handiz ibili beharko du hezitzaileak. Kontziente izan beharko du joera hori euskarak eskaintzen ez dizkion baliabideetatik abiatzen duela haurrak gehienetan. Hala, haurren ekoizpenak euskaratu eta erdua eskaintzea izan daiteke irtenbide esanguratsua, sekula ez erdal hizkuntzen debekua eta haiekiko talka zuzena.

Behaketa eta dokumentazioa ere ezinbestekoa izango dira, ez hainbeste lana egin izanaren frogatik gisa, gehiago prozesuaren eta proposamenen inguruko hausnarketa egin ahal izateko.

### **5.5. Aniztasunaren trataera**

Haurren arteko elkarreraginak, gela berean egon ahal izateak eta euren erritmoa errespetatzeak ekarriko du, nahiko modu naturalean, gelakide guztien arteko harremana egonkortzea, gaitasun ezberdinen garapena gertatu ahal izatea eta, batik bat, haur ororen ongizatea bermatu ahal izatea. Izanen da, noski, lan honetan eskaintzen diren baliabideak oso arrotzak egingo zaizkion haurrik. Egongo da proposamena bera baliagarria ez zaionik. Izan ere, hori izango da hezitzailearen lana, proposamen orokor honi bizia ematea. Haurrak ezagutu, gela behatu, eskola ikusi, baliabideak kalkulatu... Eta prozedura luze eta nekezaren ostean haurrei eskainiko diena sortu, hori ebaluatu eta moldatzen joan.

Bide berean, ezinbestekoa izango da behaketa pertsonalizatzea. Tutorearekin lankidetzak asko lagundu lezake prozesu horretan. Ikusi genezake gelan erritmo eta gogo ezberdinak dauzkaten haurrak daudela eta proposamena horretara egokitu.

## **6. BERTSO-JOLASETARAKO BALIABIDEAK**

Baliabideak zehazteko urratsa izanen da hurrengo lerroetako lana, orain arteko irizpideak aintzat hartuz. Argi utzi nahiko genuke proposamenak izaera irekia behar duela izan, moldagarria. Hala, hezitzaile bakoitzaren lana litzateke proposamen honen baitako baliabideak bere gelara, taldera, haurren ezaugarrietara eta testuingurura doitzearena. Ildo beretik, garrantzitsua litzateke erritmoa haurrek finkatzea, egutegi zurrunik alboratuz. Baliabideak aurkezterako garaian kontuan hartuko genituzke bakoitzarekin eskuratuko diren gaitasunak, beteko dituen helburuak zein landuko dituen edukiak.

Baliabideek forma ugari har litzakete, ez soilik euskarri fisiko eta ukigarria, baita baliabide teknikoak, pertsonalak edo teknologikoak ere. Baliabideak irekiak eta moldagarriak dira ariketa definitu baten zurruntasunarekin alderatuz gero. Finean, baliabide sorta da eskaintzen dena, hezitzaileak berak eta hurrekin elkarreraginean jardungo den orok eskainiko diena.

Elkarrizketak sortu eta hizkuntza-eredu anitzak eskaintzeko saiakera dira batzuk. Beste batzuk baliabide teknologikoak, soinua eta hitzen musikaltasunarekin jolasteko. Badago baliabide materialik jolasean aritu ahal izateko, baita hitzarekin jolasteko proposamen ludikorik ere. Jo dezagun, bada, horiek azaltzera:

### **6.1.        *Elkar ezagutzen***

Hezitzailea gelan sartuko den lehenengo unetik hasiko da hurrengan eragiten, hurrek beregan eragingo duten bezala. Hori kontuan hartuz, ezinbestekoa izanen da hasieran haurrak ezagutzea, haiekin harremana sortzea. Irudi lezake hezitzailea gelan esku hartu gabe edukitzea eta tutorea bertan mantentzea giza baliabideak xahutzea dela. Pentsamendu horrek zein logikarekin bat egiten duen agerikoa da. Bestalde, aukera erreala dagoen heinean, hezitzaileak gelan pasako lituzke bi edo hiru egun; haurrak ezagutuko lituzke, euren komunikazio gaitasuna behatu, gela, eskolako giroa bizi, espazioa diseinatzeko informazioa batu...

Hurrekiko harremanean denborak eskaintzen dituen erraztasunak baliatuko genituzke horrela, haurrak lehenengo egunetik ezagutzen ez duten pertsona batekin, ezagutzen ez duten gai bati buruz hitz egiten jartzea baino eraginkorragoa delakoan. Hasierako ebaluazioarekin lotu genezake proposamenaren alderdi hau.

Ondotik, zehaztu ditzagun proposamen honekin eskuratuko liratekeen gaitasunak. Horretarako kontuan hartu beharko genituzke gelan berria den hezitzaileak eragingo lituzkeen elkarrizketak eta emozioak. Has gaitezen oinarrizko zehar-gaitasunekin:

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako gaitasuna.
- Elkarbizitzarako gaitasuna.
- Norbera izaten ikasteko gaitasuna.

Segi dezagun oinarrizko gaitasun espezifikoekin:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna.
- Gaitasun sozial eta zibikoa.

Zehaztu ditzagun, jarraian, bete nahi diren helburuak:

- Hezitzailearekin harremana sortzea, bizipenak partekatuz, lotura afektiboa eta konfiantzazko giroa lortzeko.

- Elkarren zaintza sustatzea, elkarbizitza arauak errespetatuz, harreman orekatu eta osasuntsuak eraikitzeko.

Gauza bera egingo dugu edukiekin:

- Besteen adierazpenak kontuan hartzea.
- Elkarrizketa arauak barneratzea.

## **6.2. Elkarrizketak**

Behin ezagutza egun horiek amaituta, hezitzaileak tartea hartuko luke espazioaren diseinuan eta materialaren egokitzapenean lanean jarduteko. Gelara itzuliko litzateke bere asteko egunean eta tutorearekin batera elkarrizketa hasiko luke hurrekin. Halako elkarrizketak izateko asanblada baliatu lezake edo, bestela, haurrak lasai egongo diren beste uneren bat. Saiatuko da haien eguneroko jarduna ez eteten eta elkarrizketak noranzko naturala har dezan utziko du, horrek gaitik aldentzera eramanda ere. Funtsean, ezein elkarrizketak ahozkotasuna garatzea lekarke, proposamen honen gakoetakoa dena. Hala ere, zehaztu ditzagun zenbait hizketagai esanguratsu:

Hitzaren jolaserako aukerez, bertso-jolasez, haien joerez, motibazioez... hitz egiten hastea izan liteke lehen urratsa. Haien aurrezagutzak eta iritziak biltzen saiatuko da hezitzailea eta haurren erantzunek, haurren galderek eta haien arteko elkarrizketek, gaiarekiko motibazioak, jakin-minak eta jarrerak emanen dio beharrezko informazioa.

Material fisikoaren aurkezpena egiteko une interesgarria izan liteke lehen elkarrizketa hau. Denboraren arabera espazioa eraiki eta aurkeztekoa, arauak azaldu eta adostekoa nola. Kontuan hartu behar da uneoro, modu naturalean sortutako elkarrizketa bat eteteak, material didaktikoa eskaintzearen izenean izanda ere, kontraesanean eroraraziko gintuzkeela.

Materiala aurkezterako garaian interesgarria litzateke bere burua bidelagun gisa aurkeztea. Hitzekin jolasteko, materiala erabiltzen edo sortzen laguntzeko, hitz egiteko, laguntzeko, erronkak jartzeko... gertu dagoen bidelagun gisa eta, esan gabe doa, zaintza-lanetarako.

Beste hizketagai interesgarri bat bertsogintza bera izan liteke, bertsoarekin hurrekin izan dituzten bizipenetatik sortutako eta eraikitako elkarrizketa litzatekeena. Bertsoa euskaraz ekoizten den bat-bateko kultur ekoizpen jostaria izaki, interesgarria litzateke

berorren funtsa jolasaren baitan kokatzea. Haurrei erakargarria eta ezaguna egingo zaie hitzarekin jolastearen ideia.

Beste kultura batzuetako bat-bateko kultura ekoizpenen inguruan hitz egiteko tartea hartzea ere interesgarria litzateke, betiere, gelako haurren errealitatea oinarritzat hartuz. Andaluziako senideak dauzkan haurrari errazagoa egin dakioke “troboaz” hitz egitea, senide kubatarrek dauzkanak “repentisten” inguruan jakiteko aukera gehiago daukan bezala, esate baterako. Galizieraz abesten den “regueifa” hurbilekoa egin dakioke La Coruñako senideak leuzkakeen haurrari.

Haurren H1 gutxituari beharrezko lekua emateko ezinbestekoa litzateke gai hau lantzea, baita H1 horiek kontuan hartu eta interesa agertzea ere. Dena den, gelako haur guztien ama-hizkuntza euskara izanda ere, esanguratsua izan liteke haurrentzat mundua ezagutzeko beste euskarri bat eskaintzea.

Hizketagaiak hizketagai, ulertu behar da hizketaldi eta hitzaldiaren arteko ezberdintasuna, galderak izango direlarik elkarrizketa mantentzeko baliabide esanguratsuenetako bat. Input aberatsa eskaintzeko eta output-ean eragiteko baliabideak erabiltzeko une egokia litzateke.

Horrek denak ikuspuntu komunikatiboaren logika jarraitzen du, hizkuntzaren erabilerak, hezitzailearen laguntzaz batera, ekarriko du gogoeta metalinguistikoa eta, ondoren, hizkuntzen arauen barneratzea. Hizkuntza ez da edukiak transmititzeko tresna hutsa, gelan harremanak lantzeko, emozioak azaltzeko, komunikatzeko, gaitasunak eskuratzeko eta beste hainbat helburu lortzeko baliabidea da.

Oinarrizko zehar-gaitasunak:

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako gaitasuna.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
- Elkarbizitzarako gaitasuna.
- Norbera izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko gaitasun espezifikoak:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna.
- Gaitasun sozial eta zibikoa.

Helburuak:



- Norbere interesak, motibazioak eta nahiak adieraztea, elkarrizketen bitartez, taldean euren lekua hartzeko.
- Bere desirak eta interesak identifikatzea, auto-ezagutzaren bidez, bere burua ezagutu eta taldearen parte sentitzeko.
- Komunikazio gaitasuna lantzea, elkarrizketa egoera medio, bere pentsamendu eta emozioei adierazkortasuna emateko.
- Besteen ekoizpenak eta adierazpenak kontuan hartu, output-ean eragiteko estrategiak baliatuz eta eskaintzen zaion input-a erabiliz, bere adierazteko gaitasuna aberasteko.
- Bertsolaritzara hurbiltzea, ikaskideen eta helduen bizipenak entzunez, euskarazko ekoizpenak balioetsi eta kontuan hartzeko.
- Helduen eta ikaskideen eredu izaera balioztatzea, egoera komunikatibo erreala tarteko, komunikazio gaitasuna lantzeko.
- Inguruko kulturak ezagutzea, ikaskideen edo euren senitartekoen bizipenak baliatuz, kulturartekotasunean eta elkarbizitzan sakontzeko.
- Hizkuntza eta kultura ezberdinak ezagutu eta balioestea, gelako errealitatea aprobetxatuz, beroiekiko hurbilpena eman dadin.
- Etorकिनen seme-alaben kulturari edo euren senideenari parada eskaintzea, hitza eskainiz, euren identitatea eta auto-estimua indartzeko.

#### Edukiak:

- Adierazteko baliabideak eskuratzea.
- Elkarrizketetan modu aktiboan parte hartzea.
- Auto-estimua lantzea.
- Talde kohesioa indartzea.
- Elkarrizketa arauak birgogoratzea.
- Entzuten ikastea.
- Txandak errespetatzen ikastea.
- Libreki adierazteko konfiantza eskuratzea.
- Kulturartekotasunean sakontzea.
- Elkarbizitza erraztea.
- Beste kultura eta hizkuntza batzuekiko jarrera lantzea.
- Jarrera baztertzailleak ekiditea.

### 6.3. **Irratsaioa** (haurren doinutegia)

Proposamen musikatua litzateke honakoa. Hurrei ezagunak egin dakizkiekeen abestiak hautatuko genituzke gelan jartzeko eta euren egitura jarriko genuke begirada. Euskal kantagintzan agerikoa da bertsolaritzaren elkarreragina, egitura, doinu, neurri eta gai aldetik. Hori probestu genezake hurrei abesti horien neurriak bertsoekin daukan harremana azaltzeko, esate baterako.

Oinarrian “haurrentzako abestiak” eskaintzea izan liteke aukerarik agerikoena baina horretan ere moldagarria beharko luke proposamenak. Haurren euren testuinguruaren arabera ezagunak egin dakizkiekeen abestiak anitzak izan litezke edo, nahi izatekotan, abesti ezberdinak eskaini geniezazkieke errepertorioa zabaltzeko.

Hots, berdin izan litezke egokiak Pirritx, Porrotx eta Marimotosen *Olentzero ta astoa* edo *Munduko loreak* abestiak edo, akaso, Xabier Leteren *Habanerak*. Horrek heldulekua emanen lioke haurrari oinarri musikatu eta neurtuaren gainean bere ekoizpen propioak eraikitzeko. Hezitzailearen lana ekoizpen horiek balioan jartzearena litzateke, besteen ekoizpenak errespetatzen direla ziurtatuz.

Agian, errazagoa izan liteke haurrak eurak horretan saiatzea hezitzailearen eredia baliatuta. Aprobetxatu lezake hezitzaileak, giroak horretarako abagunea eskainiko balio, haurren inguruko bertsoren bat sortzeko, adibidez. Horrekin, argiago ikusi lezake haurrak egitura mantentzeak eskaintzen diola esan nahi duen horretarako tartea.

Oso esanguratsua izan liteke etorkinen seme-alabei euren H1ean abestea proposatzea. Dena den, euren erabakia errespetatzea ezinbestekoa litzateke, interesa agertuz baina inor derrigortu gabe.

Ezingo dugu ahaztu zenbait hurrek badutela jolas honetarako berezko joera, erraza egingo zaiela euren modura egitea. Beste batzuek, ordea, lehen aldiz probatuko dute jolasa eta norgehiagoka ekiditeko betebeharra hezitzailearena izanen da.

Gerta liteke, ekoizpen libre horretan, hurrek bikoteka edo taldeka jolasteko aukerak euren kabuz esploratzea. Dena den, proposatu geniezaieke jolas moduan eta txandaka aritzea; hezitzailearekin batera edo euren kabuz. Denon artean ekoizpena osatzearen ideiak lankidetzarekin lotura zuzena leukake, Haur Hezkuntzan balore garrantzitsutzat ulertu behar litekeena.

Ezin dugu ahaztu ekoizpenean zuzenki parte hartu nahi ez duen haurra ere badela momentuaren eta jolasaren parte. Hortaz, ahozkotasuna eta beste hainbat gaitasun landuko lituzke kantari aritzen den haurrak nola entzule gisa jarduten denak ere.

Oinarrizko zehar-gaitasunak:

- Lankidetzarako gaitasuna.
- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako gaitasuna.
- Elkarbizitzarako gaitasuna.
- Norbera izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko gaitasun espezifikoak:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna.
- Gaitasun sozial eta zibikoa.
- Arterako gaitasuna.

Helburuak:

- Hitzen silaba kontaketa lantzea, doinu musikatuena bidez, gogoeta metalinguistikoak bultzatzeko.
- Gainontzekoen ekoizpenak entzutea eta ekoizpen propioak sortzea, ahotsaren bitartez, hizkuntza jolasarekin eta plazerarekin lotzeko.
- Taldearen parte sentitzea, ekoizpen kolektiboen bidez, auto-estimua lantzeko.
- Taldean jardutearen abantailak ikustea, jolasa partekatuz, lankidetzajarrerak indartu eta balioesteko.

Edukiak:

- Silaba kontaketaekin jolastea.
- Ahotsa eta fonetika lantzea.
- Musikaltasuna garatzea.
- Ekoizpen propioak balioestea.
- Gainontzekoen ekoizpenak entzuten eta errespetatzen ikastea.
- Lankidetzaren abantailak erdiestea.
- Taldearen parte sentitzea.

#### **6.4. Errimadun memoria**

*Memorya* jolas ezaguna da eta maiz erabiltzen da HHn, gai zehatz batekin lotua edo ez, hiztegia eta memoria lantzeko. Proposamen honen berezitasuna errimatzen duten arteko hitzen lotura egitean legoke. Hitzen hoskidetasunari begira jarriko genituzke haurrak euren artean amaiera berbera duten hitzak irudi bidez proposatzean.

Esate baterako, “ezpata” eta “zapata” irudiak bikotea dira haien artean errimatzen dutelako. Irudi horiek identifikatzen errazak izan behar lirateke, zailtasuna hoskidetasunean egon dadin, ez irudien interpretazioan.

Kontuan hartu behar litzateke irakurketa ez dela, bere horretan, HHko helburuetako bat. Hala ere, testu idatzia lagungarria izan liteke azken letren antzekotasuna errazago ikustarazteko.

Taldearen eta haur bakoitzaren arabera moldatu genezake materiala eta proposamena bera; tutorearekin lankidetzan aritzea ezinbestekoa izan litekeelarik. Modu berean, proposatu genezake hasiera antzekoa duten hitzen arteko lotura egitea, hiruko taldeetan sailkatzea, kartak buruz gora jarrita jolastea... Beste behin ere hezitzaileari eta tutoreari legokieke jolasaren nondik norakoak finkatzea, betiere, haurrak erdigunean jarriz eta euren beharretara egokituz.

Oinarrizko zehar-gaitasunak:

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako gaitasuna.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
- Ekimenerako gaitasuna.
- Memorizatzeko gaitasuna.

Oinarrizko gaitasun espezifikoak:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna.
- Arterako gaitasuna.

Helburuak:

- Hitzen hoskidetasuna lantzea, jolas arautuaren bidez, hitzekin jolasten jarraitzeko baliabideak eskuratzeko.
- Hitza jolaserako tresna gisa balioestea, praktika medio, ekoizpen artistikoak areagotzeko.
- Karten kokalekua gogoratzea, erronken bitartez, arreta eta memoria lantzeko.

Edukiak:

- Hitzen hoskidetasunean sakontzea.
- Gaitasun artistikoak garatzea.
- Memoria lantzea.
- Arreta lantzea.

## **6.5. Mikrofono irekia**

Proposamena sinplea izanagatik ere oso baliagarria eta erakargarria delakoan, hurrei euren ekoizpen prestatuak zein bat-batekoak aurkezteko espazioa litzateke honakoa. Mikrofono bat eskainiko litzaieke une jakin batzuetan erabili ahal izateko eta berriz ere arauak besteekiko errespetuak finkatuko lituzke.

Interesgarria izan liteke oinarri musikalak eskaini ahal izatea, horrekin silaba kontaketa eta ekoizpenaren neurria kalkulatzeko laguntzeko. Silaba kontaketa txalo bidez azaltzeko joera dago Haur Hezkuntzan, horrek lan hori errazten duelakoan. Modu interesgarria da hitzen silaba-zatikatzeko hastapena egiteko eta zenbait haurren interesa piztu ohi du.

Hala ere, berriz ere fokua hitzean jartzen ariko ginateke horrekin, testuinguru komunikatiboa ahantziz. Esanguratsuagoa izan liteke hitz musikatuak eskaintzen digun berezko neurkera.

Ez dugu esango txalo bidezko kontaketa akatsa denik baina, berriz ere, haurrari hitz egiteko eta adierazteko tartea murrizten ariko ginateke. Interesgarriagoa izan liteke hezitzailearen, tutorearen edo beste haurren ereduak eskaintzeko aukera aprobetxatzea.

Oinarrizko zehar-gaitasunak:

- Jendaurrerako gaitasuna.
- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako gaitasuna.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
- Ekimenerako gaitasuna.
- Norbera izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko gaitasun espezifikoak:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna.
- Gaitasun sozial eta zibikoa.
- Arterako gaitasuna.

Helburuak:

- Ekoizpen propioak balioestea, beroiek jendaurrean aurkeztuz, lotsak eta beldurrak gainditzen laguntzeko.

- Elkarbitzita lantzea, besteen ekoizpenak entzun eta errespetatuz, horiek balioesten ikasteko.

Edukiak:

- Ekoizpen propioak balioesten ikastea.
- Besteen ekoizpenak aintzat hartzea.
- Lotsak eta beldurrak gainditzea.

## **6.6. *Hizkuntza poetikoa***

Igerabide (1993) gorputz eta arimaz hitz egiteaz mintzo da, zehazki, mintzoa deritzo. Sentitzen denari hitzak jartzea litzateke mintzoa edo, nolabait, sentimenduak modu sakonean adierazteko gaitasuna.

Horrekin lotuta, emozioak bereizten eta euren izenak esaten irakatsi nahi izaten zaie haurrei. Batzuetan, emotikonoak ere baliatu ohi dira horretarako. Igerabidek proposatzen duena olerki eta bertsoak baliatzea da, sentipen zehatzekin lotu daitezkeenak eta hainbat figura erretorikoren eredu eskainiko dizkietenak, esate baterako.

Bertso eta koplak zahar ugari jartzen dizkigu adibidetzat eta horiek zehaztea, berriz ere, hezitzailearen lana izanen da. Hala ere, oinarria zehazte aldera, benetakako asmo komunikatibo bati erantzuten dion hizkuntza poetikoaz ari zaigu idazlea. Ezin genezake, ez eta edertasunaren izenean ere, behar hori ahaztu.

Abestu geniezaieke poemaren bat, koplaren bat, euren emozioekin lotu lezaketen bertsoaren bat, edo eskaini irakurketa moduan bestela. Banakako momentuak aprobetxatuz edo taldean, baina haurrak eskaintzen ari gatzaizkiona zer den argi izan dezan saiatu beharko genuke. Zerekin lotzen ditugun guk hitzok, zergatik abesten edo irakurtzen dizkiegun, zergatik iruditu zaigun horiek egokiak zirela beretzat edo beraientzat...

Argi izan behar genuke haurrari proposatu egin beharko geniokeela, galdetu eta erantzuna errespetatu. Guretzat momentu polita izan litekeena harentzat, agian, ez litzatekeelako momentu aproposena.

Oinarrizko zehar-gaitasunak:

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako gaitasuna.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.

- Norbera izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko gaitasun espezifikoak:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna.
- Gaitasun sozial eta zibikoa.
- Arterako gaitasuna.
- Mintzatzeko gaitasuna.

Helburuak:

- Momentuko egoerara eta bere egoerara doitutako aleak jasotzea, une goxoen bidez, bere emozioak ulertzen laguntzeko.
- Hizkuntza poetikoaren adibideak jasotzea, eredu anitzen bitartez, bere emozioei hitzak jartzen ikasteko.

Edukiak:

- Hizkuntza poetikoa lantzea.
- Emozioak interpretatzen ikastea.
- Gaitasun komunikatiboan sakontzea.

Lanaren atal hau gehiegi ez luzatzearen, baliabide gehigarriak aurkitu daitezke 2.eranskinean. Gehien zehaztu eta azaldu direnak lanaren baitan kokatuak daude eta berritzaileagoak dira. Eranskinetan txertatuko direnak, aldiz, ohiko jolasen moldaketak dira eta, alde horretatik, ez dute hainbeste azalpenik behar.

## 7. EBALUAZIOA

Ebaluazioa zein asmorekin burutzen dugun zehaztetik hasi beharko genuke. Ebaluazioak hezitzailea izan behar luke; norbanakoari, taldeari edo hezitzaileari prozesua hobetzeko baliabideak eskainiko baitizkio. Begirada horrekin sortuko da.

Lehenago aipatu lez, lehenengo elkarrizketek hasierako ebaluazioa burutzen lagunduko digute. Hortik eraikiko dugu proposamenaren alderdirik zehatzena, horri esker doitu dugu proposamena haurren jakin-min, motibazio, gaitasun eta aurrezagutzetara. Nolabait, haurren abiapuntua non dagoen jakinen dugu horrela. Atal honetan oso garrantzitsua izango litzateke tutorearekin lankidetzan aritzea.

Egunerokoa tresna esanguratsua izan liteke hasierako momentuetan baina argi izan behar dugu hezitzaile bakoitzak erosoan zaizkion ebaluazio-tresnak baliatzeko eskumena izan beharko lukeela.

Prozesuaren behaketa eta ebaluazioa gaitasunetatik planteatzeak zentzu berria emanen dio ebaluazio-prozesuari. Kalifikazioen zentraltasuna auzian jarriko du ikuspegi konpetentzialak. Hori dela eta, ezinbestekoa izanen da behaketa indibiduala eta dokumentazioa burutzea, behaketa-taula zurrinak ahaztu eta egoeren zein gertaeren deskribapen eta hausnarketak hobetsiz.

Hala ere, begirada non jarriko den aurretik zehaztea garrantzitsua izanen da, bestela behaketa lana zaila izan litekeelakoan. Ebaluazio-item zehatzak baino, galdera zabalak proposatuko dira horretarako, eskuratuko diren gaitasunekin zuzenean lotuak (ikus 3. eranskina).

Behaketak, modu berean, emanen liguke espazioaren, materialaren, gure esku-hartzeen eta proposamen bakoitzaren inguruko informazioa, baita moldaketen inguruko jarraibideak ere. Espazioan aldaketak burutzeko ezinbestekoa izanen da haurren motibazioa neurtzea, berorren erabilpena aztertzea eta ebaluazio-prozesu hau espazioa desagertu artean mantentzea (ikus 4. eranskina).

Eskainitako baliabide bakoitza ebaluatzerako garaian ere, kontuan hartzeko modukoa izanen da eskaintzak eboluzio koherentea izan beharko duela. Ikusi genezake material zehatz batekiko interesa agortzen ari dela, elkarrizketa batek hartutako bidea luzatu genezakeela, haurrek materiala beste modu batean erabiltzen hasten direla... Horrek denak emanen liguke, adi egonez gero, moldaketak eta transformazioak egiteko beharrezko informazioa.

Horrenbestez, hasierako ebaluazioa zehaztuta, haurren prozesuaren ebaluazioa xedaturik eta sortutako materialaren eta espazioaren ebaluazioa zein auto-ebaluazioa finkatu ondoren, bukaerako ebaluazioa geneukake aipagai.

Bukaerako ebaluazioak egindako bidea erakutsi beharko liguke, ez soilik eskuratutako gaitasunak, lortutako helburuak edo landutako edukiak. Hots, haurren emozioak, bizipenak, argazkiak, sentsazioak, ekoizpenak, kontaketak, jarrerak, harremanak... ere agertu beharko lirateke azken ebaluazioan.

Proposamen gisa, bakoitzak bere gogoko tresnak eta teknikak dauzkala argi baitago, ederra izan liteke haur bakoitzari eguneroko bat eskaintzea. Bertan hezitzaileak, tutoreak, familiekin, beste hezitzaileekin, eskolako langileekin, bisitan etorriko liratekeenekin...



idatzi lezakete zer edo zer. Bidea deskribatu eta haiek bide horretan nola ikusi dituzten adierazi, betiere, euren ikuspegia egi absolutu bilakatu gabe.

## **8. GrALaren BALORAZIO PERTSONALA**

Kontziente naiz sortu dudan proposamen honen eragingarritasuna aldakorra denaz. Ez denaz Euskal Herriko ezein eskoletan abian jartzeko modukoa. Hain zuzen, horixe izan da hasieratik bilatu dudana.

Nik ildo nagusia finkatu nahi izan dut, bertsozale eta bertsozale gisa eta HHko maisu gisa eskuratutako jakintza apal eta bizipen xumeetatik; bidea proposamena aintzat hartu nahi lukeen edonork jorratu beharko du. Nik irizpide orokorrak baino ezingo dizkiot eskaini lan honetan.

Proposamena abiaraziko duen horren lana izanen da, aurretik esan bezala, lerro hauek zalantzan eta dantzan jartzea. Kendu, gehitu, ebaki, itsatsi, azpimarratu eta ezabatu lasai balio ez dizuena. Ahozkotasuna euskaratik eta euskal kultur ekoizpenetatik lantzeko beste baliabide bat gehiago eskaini nahi izan dut, etorkinen seme-alabekiko zapalkuntza sistematikoa ekiditen saiatuz, genero-ikuspegia kontuan hartu nahi izanaz eta hizkuntzaren didaktikako ikuspuntu komunikatiboa ahaztu gabe.

Saiatu naiz proposatutako baliabideek haurrei mereziko luketen autonomia eskaini diezaieten, hala ere, harrigarria da zeinen zaila zaidan euren kabuz egin ditzaten baliabideak eskaini eta paretik kentzea. Zeinen zaila zaidan protagonismoa eurei utzi eta bidelagun gisa agertzea. Noski, bide horretan ikasteko eta desikasteko asko daukat eta baita horri eusteko gogoia ere.

Lan hau eraikitzearen bideak hainbat ekarpen egin dizkio aurretik, graduan zehar eta, batik bat, praktika-aldietan izandako bizipenei eta ikasketei. Berrikuspenetarako eta ikaspen berrietarako abagunea eskaini izan dit. Hori guztia dela eta, oso modu positiboan baloratzen dut GrALaren esperientzia. Bide luzea eta zailtasunez betea izanagatik ere, ekarpenak konta ezinak direlakoan bainago.

Ea nora garamatzaten bide berriek. Jarraituko dugu erronketatik ikasten eta, bidean berriz ere topo egingen dugulakoan, eskerrik asko bidelagun izan zareten guztiei.

## 9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. (EHAA, 9.zk. 2016ko maiatzaren 15ekoa, 1-47 or.).
- Agirreazaldeggi, Ainhoa (2018ko negua). Elkarrizketa: Beñat Gaztelumendi Arandia. *Bertsolari aldizkaria*, 112, 50-79.
- Aizpurua, Karlos; Hirigoyen, Arantxa; Barandiaran, Gotzon; Artola, Mikel; Bengoetxea, Olatz; Murciano, Aroa; Ezeiza, Ainhoa eta Garzia, Joxerra (2020ko uztaila). Ahozketasunaren eta ahozko kultur sorkuntzen didaktika. *Uda ikastaroetan aurkeztua*, Donostia.
- Alberdi, Uxue (2019). *Kontrako eztarritik*. Susa.
- Amonarriz, Kike (2015eko urriaren 15a). Ahozketasuna soziolinguistikaren behatokitik. *BAT: Soziolinguistika aldizkaria*, 96, 103-127.  
[http://soziolinguistika.eus/files/kike\\_amonarriz\\_bat96.pdf](http://soziolinguistika.eus/files/kike_amonarriz_bat96.pdf)
- Amuriza, Xabier (2003). *Ahozko bizkaieraa eskolan*. Mendebalde.
- Armento, Marta (2019). Dramatización y literatura infantil: un binomio innovador para el desarrollo de la expresión oral y corporal en Educación Infantil. *Padres y maestros*, (379), 24-28.
- Aztiker soziologia ikergunea eta Euskal Herrian Euskaraz (2018). *Hezkuntza esparrua eta euskalduntzea EAEn (1983-2016)*. Argitaratu gabeko materiala.
- Barquín, Amelia eta Ruiz, Uri (2009). Hizkuntzen kudeaketa eskolan. *Tantaka*, 21 (1), 7-21.
- Besalú, Xavier (2002). Educación intercultural. In Besalú, Xavier (Ed.), *Diversidad cultural y educación* (43-72.orrialdeak). Síntesis educación.
- Bigas, Montserrat (1996). La importancia del lenguaje oral en educación infantil. *Aula de innovación educativa* 46. Bertsio elektronikoa.
- Bigas, Montserrat (2008). El lenguaje oral en la escuela infantil. In Bigas, Montserrat eta Correig, Montserrat (arg.), *Didáctica de la lengua en educación infantil* (40-77). Síntesis Educación.

- Bilbao, Xabier (1998). Hezkuntza elebidunaren antolakuntza: programa motak (4.kap). In Bilbao, Xabier (arg.), *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Del Rio, María José (1993). Algunas cuestiones e ideas previas sobre la enseñanza de la lengua oral comunicativa. In del Rio, María José (ed.), *Psicopedagogía de la lengua oral: un enfoque comunicativo* (31-44). ICE-Horsori.
- Eizagirre, Enara; Urrestarazu, Edurne eta Zubiria, Ekhi (2019). *Migrazio erdalduna herri euskaldunetan: Euskararen inguruko bizipenak eta iritziak*. Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea.
- Eizagirre, Estitxu (2016ko azaroaren 13a). 80 urte geroago nola egiten dugu bertsoan? *Argia. Edizio digitala*.
- Ezeiza, Ainhoa (2020ko apirilaren 8a). *Komunikazio gaitasuna eta hizkuntza gaitasun kritikoa* [Podcast audioa]. <https://www.ehu.es/ehusfera/komunikatzen/2020/04/08/komunikazio-gaitasuna-eta-hizkuntz-gaitasun-kritikoa/>
- Freire, Heike (2015). *Berdean hezi. Haurrak naturara hurbiltzeko ideiak*. Txatxilipurdi.
- Hik Hasi: euskal heziketarako aldizkaria (2005eko martxoa). Ahozotasuna lantzen. *Hik Hasi: euskal heziketarako aldizkaria*, 96, 40-42.
- Hik Hasi: euskal heziketarako aldizkaria (2015eko azaroaren 1a). Haurren autonomia. Norbera izateko egiten den ibilbidea. *Hik Hasi: euskal heziketarako aldizkaria*, 202, 11-17.
- Hik Hasi: euskal heziketarako aldizkaria (2018ko urriaren 1a). Elkarrizketa: Iratxe Retolaza. EHU-ko hizkuntza eta komunikazio saileko irakaslea. *Hik Hasi: euskal heziketarako aldizkaria*, 231, 16-23.
- Hiru damatxo (2015eko abenduaren 16a). *GureBazka | Joxerra Garzia* [Bideoa]. [https://www.youtube.com/watch?v=mWOJyBcpFEc&ab\\_channel=HiruDamatxo](https://www.youtube.com/watch?v=mWOJyBcpFEc&ab_channel=HiruDamatxo)
- Igerabide, Juan Kruz (1993). Haurra eta ahozotasuna in *Bularretik mintzora: haurra, ahozotasuna eta literatura* (225-241 or.). Erein.
- Iturrioz, Nagore (2019). Hezkidetzatik, pedagogia feministarantz. *Pikara online magazine*. <https://www.pikaramagazine.com/2019/03/hezkidetzatik-pedagogia-feministarantz/>

- Larraza, Saioa (2019). *2.gaia: Elebitasuna norbanakoarengan*. Argitaratu gabeko materiala.
- Martínez Martín, Irene (2016). *Construcción de una pedagogía feminista para una ciudadanía transformadora y contra-hegemónica*. Foro de Educación, 14(20), 129-151. doi: <http://dx.doi.org/10.14516/fde.2016.014.020.008>
- Reguero, Urtzi (2020). *3.gaia: Ahozkoatasunaren ezaugarriak. Ahozko ulermena eta adierazpena*. Argitaratu gabeko materiala.
- Reguero, Urtzi (2020). *4.gaia: Ahozkoa ikasteko eta garatzeko irakaskuntza estrategiak*. Argitaratu gabeko materiala.
- Rodriguez, Fito (1995). Ahozkaritzaren ekoizpena hezkuntzan: bertsolaritza, ipuingintza eta beste zenbait adibide. In Eusko Ikaskuntza (ed.), *XII Congreso de Estudios Vascos* (321-325). Eusko Ikaskuntza editoriala.
- Ruiz Bikandi, Uri (2010). *Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Sakanako Eskola Txikiak. (2016). *Dumas proiektua: Hezkuntza proiektu berritzailea 2016-2017*.
- Solís, Patricia (2019). La importancia del juego y sus beneficios en las áreas de desarrollo infantil. *Voces de la educación*, (4) 44-51.
- Soziolinguistika Klusterra (2017ko uztaila). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa*.
- Vygotsky, Lev (1934). *Pensamiento y lenguaje*. Paidós.
- Zubiri, Harkaitz (2018ko negua). Bertsozaletasunaren III. azterketa soziologikoa. *Bertsolari aldizkaria*, 112, 14-49.

**Oharra:** Erabaki kontzientea izan da, APA arauak diotenaren kontra, erreferentzia bibliografikoetan autoreen izen osoa jartzea, bestela, inisialaren atzean ezkutuan geratu litezkeen emakumeak ikusgai jartzeko. Modu berean, euren lanak bi abizenekin sinatu dituzten autoreen erabakia errespetatze aldera, gauza bera egitea pertinentea iruditu zait orrialde honetako erreferentzien azken zerrendatzean.

## ERANSKINAK

### 1.eranskina: Proposamena gauzatuko balitz kontuan hartzekoak.

- Hau ez da proposamen zurruna, hain zuzen, kontrakoa izateko asmoz sortua izan da. Hortaz, haurren, gelaren, familien, tutorearen, eskolaren... ezaugarrien arabera, moldatuko da alderdi praktikoa.
- Eskolaren, auzoaren, herriaren edo haurren euren testuinguru soziolinguistikoa eta sozioekonomikoa baldintzatzaileak izanen dira lan honen aurrean. Hori onartzea ezinbestekoa izanen da, proposamena bera zalantzan jarriko dugularik. Dena den, lehenago aipatu bezala, proposamenaren izaera moldagarriak aukera emanen digu beharrezkoak diren moldaketak egiteko, horrekin, proposamena deseraiki eta berriro eraikitzeko.
- Baliabideak proposatzean ez da irizpide teorikoak indartzea besterik bilatu. Zehaztutako ikuspuntu komunikatiboa kontuan hartuz gero, etorkinen seme-alaben hizkuntza eta kultura gutxituei lekua eginez gero eta sexu-genero bereizketak indartu edo hauspotu ezean, gainontzekoa iradokizun huts gisa irakurri behar litzateke.
- Proposamena bertsogintzarekiko hurbilpen gisa hartu liteke baina oinarririk sendoena ahozkotasanaren lanketan datza. Hori izanen da lanketaren xede nagusia eta ikuspegi hori ezingo da galdu.
- Hala ere, hizkuntza poetikoaren lanketak eta hitza jolaserako baliabide gisa ikustarazteak haurren garapenean hainbat abantaila eskainiko ditu. Ezingo da, bakarrik, komunikazio gaitasunean eragingo duen proposamen gisa ulertu. Alderdi emozionalean, talde kohesioan, garapen kognitiboan, sormenean... izango duen eragina kontuan hartzekoa izanen delarik.
- Proposamenaren moldaketa ezinbesteko lana izanen da jardunak inklusiboa izan nahi badu.
- Hurrek landutako gainontzeko ahozko kultur sorkuntzekin harremanetan jartzeak esanguratsuagoa bilakatuko du proposamena bera.
- Hurrei eskainiko litzaizkiekeen egunerokoetan komeniko litzateke “nik uste dut...”, “...iruditzen zait.”, “...ikusit zaitut.” eta antzeko esamoldeak baliatzea. Batik bat, norberaren usteetatik eraikitako balorazio edo ebaluazioak beste batzuekin uztargarriak direlako.
- Haurren autonomia eta auto-erregulazioa erdigunean jarri beharko lirateke. Ezingo litzateke inor parte hartzera derrigortu, agian, beste une edo tarte

batzuk baliatu behar izatea gerta litekeelarik haurrak proposamenean murgiltzeko.

- Aurreikuspenak beteko ez balira ezingo litzateke lehen kolpetik etsi, haur batzuekin funtzionatu lezakeena beste batzuentzat egokia ez izatea gerta litekeelarik. Berriz ere hezitzailearen egokitzapen-gaitasunak markatuko luke proposamenaren baliagarritasuna.
- Ebaluazioa ezingo da, inola ere, haurren ekoizpenen arabera izan.

## **2.eranskina: Baliabide gehigarriak**

### 1. Hasieratik hasi

Antzara-jokoaren bertsioa da, mahai-jokoa baino lurrean marraztutako laukietan jokatzekoa. Taldean edo bikotean jokatuko da eta erdiko jokalaria(k) laguntzailea(k) izanen ditu joko-zelaitik kanpo.

Espazioaren erdian marraztuko dira laukiak eta hor egonen dira hurrek nahi dutenean jolas dezaten. Hezitzaileak euren galderak erantzungo ditu eta arazoetan edo liskarretan esku hartu, haurren batek eskatuta parte hartu lezake baina ez jolasa gidatu.

Hasieran haur bat kokatuko da hasierako laukian eta besteren batek hitz bat proposatuko dio. Joko-zelaian dagoen haurrak hitz horren soinu berarekin hasten diren hitz bakoitzeko pausu bat emanen du hurrengo laukitxora.

Erronka nork bere buruari jarriko lioke horrela baina ez litzateke norgehiagokara bultzatuko dituen jolasa. Gainera, elkarlana ere sustatzen da, laguntzaileek eskumena dutelako, jokalaria nahiko balu, laguntza eskaintzeko. Horretarako, pistak eman ditzakete, hitz osoak esan, hitzaren hasiera...

Antzeko zerbait egin liteke errimatuko luketen hitzekin baina bost urteko gela batean erronka zailegia izatea gerta liteke.

Oinarrizko zehar-gaitasunak:

- Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako gaitasuna.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
- Ekimenerako gaitasuna.

- Lankidetzarako gaitasuna.

Oinarrizko gaitasun espezifikoak:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna.
- Arterako gaitasuna.

Helburuak:

- Hitz ezberdinak pentsatzea eta entzutea, jolasaren bidez, hiztegia lantzeko.
- Soinu anitzak ekoiztea, imitazioaren bitartez, kontzientzia fonetikoak garatzeko.
- Hitzen hoskidetasuna lantzea, jolas arautuaren bidez, hitzekin jolasten jarraitzeko baliabideak eskuratzeko.
- Taldean jardutearen abantailak ikustea, jolasa partekatuz, lankidetzajarrerak indartu eta balioesteko.

Edukiak:

- Hitzen hoskidetasunean sakontzea.
- Hiztegia lantzea.

## 2. Istorioa eraikitzen

Haur Hezkuntzan maiz baliatzen den jolasa da istorioak taldean eraiki eta osatzearena. Bertsolariak ere, sarritan, istorioa eraiki egin behar du eskaintzen zaizkion heldulekuetatik tiraka. Batzuetan bakarka, besteetan elkarlanean. Istorioak asmatzeak eta kontatzeak ahozkotasunean daukan eragina agerikoa da baina, hala ere, sormenean, auto-estimuan eta garapen kognitiboan ere, besteak beste, eskainiko du bere aletxoak.

Poltsa batean sartuko ditugu txartel ezberdinak: lekuak, pertsonaiak, gertaerak... den-denak irudi bidez adieraziak. Arreta berezia jarriko pertsonaien aniztasunean, eredu anitzak eskaintze aldera. Poltsa sortu dugun espazioan izango dugu eta haurrek aukera izanen dute noiznahi bertatik ateratako txartelekin istorioak sortzeko.

Hezitzailearen lana haurrak xaxatzea izanen da berriro ere, jolasa proposatu ondoren haurren motibazioa eta interesa neurtu eta horren arabera esku-

hartzekoa. Esan gabe doa hurrekin elkarlanean istorioak eraikitzea ere interesgarria izan litekeela.

Oinarrizko zehar-gaitasunak:

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako gaitasuna.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
- Norbera izaten ikasteko gaitasuna.
- Jendaurrerako gaitasuna.

Oinarrizko gaitasun espezifikoak:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna.
- Gaitasun sozial eta zibikoa.
- Arterako gaitasuna.

Helburuak:

- Eskaintzen zaizkion pertsonaia, gertaera, eszenatoki... anitzetatik hasita istorio bat eraikitzen joatea, kontaketa bidez, sormena garatzeko.
- Besteen istorioak entzutea, arretaren bidez, hiztegia lantzeko.
- Hitza jolaserako tresna gisa balioestea, praktika medio, ekoizpen artistikoak areagotzeko.

Edukiak:

- Sormena garatzea.
- Hiztegia lantzea.
- Istorioen kontaketa sakontzea.
- Besteen ekoizpenak aintzat hartzea.

### **3.eranskina: Ikaskuntza prozesuaren ebaluaziorako behaketa-irizpideak**

- **Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako gaitasuna:**
- Gai da bere emozioak, desirak, zalantzak... hitzez adierazteko? Erraza zaio ikaskideekin? Gurekin?
- Bere mezua osatzeko gorputz-adierazpena baliatzeko gai da?
- Egoera komunikatibo ezberdinetara (talde handian, binaka, elkarriketa, jolasa...) moldatzeko gai da?



- **Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna**
- Gai da jasotzen duen informazioa interpretatzeko?
- Elkarrizketen haria mantentzeko gai da?
  
- **Elkarbizitzarako gaitasuna**
- Gai da besteen ekoizpenak kontuan hartu eta errespetatzeko?
- Besteen emozioak eta nahiak ulertzeko eta errespetatzeko gai da?
- Gai da jolasaren, materialaren, espazioaren... arauak taldean adosteko?
- Gai da arau horiek barneratu eta betetzeko?
  
- **Ekimenerako gaitasuna**
- Gai da proposatutako jolas eta elkarrizketetan sormenez jarduteko?
- Gai da inizatibaz aritzeko?
- Gai da bere ekintzak antolatu eta erregulatzeko?
  
- **Norbera izaten ikasteko gaitasuna**
- Gai da bere emozioak identifikatu eta adierazteko? Nola adierazten du?
- Gai da parte hartu nahi ote duen bere kabuz erabakitzeke?
  
- **Lankidetzarako gaitasuna**
- Gai da taldean jolasteko?
- Bere lekua hartzeko gai da? Nola?
- Besteen ekarpenak kontuan hartzeko eta balioztatzeke gai da?
  
- **Jendaurrerako gaitasuna**
- Gai da urduritasuna kudeatzeko?
- Zein talde motaren aurrean egiten zaio errazago edo zailago?
- Jende aurrean disfrutatzeko gai da?
  
- **Memorizatzeko gaitasuna**
- Gai da karten posizioa oroitzeko?
- Gai da aurretik sortutako loturak gogoratzeko?
  
- **Mintzatzerako gaitasuna**

- Gai da eskaintzen dizkiogun hitzak bere emozioekin, bizipenekin edo gertakariekin lotzeko?
- Gai da bere adierazpenetan, sotilki bada ere, hizkuntza poetikoa baliatzeko?

#### **4.eranskina: Irakaskuntza prozesuaren ebaluaziorako behaketa-irizpideak**

Espazioa:

- Haurrentzat erakargarria da? Arreta ematen die? Atsegina da?
- Estetikoki zaindua dago?
- Arauak argi definituta daude?
- Transformatzeko gaitasuna dauka edo egituraketa zurrunkoa da?
- Beharrezko baliabideak eskaintzen dizkie?
- Hartu dezakeen haur kopurua egokia da?
- Argia kopuru eta kalitate aldetik egokia da?
- Haurrak inizatiba propioz hurbiltzen dira? Interesa mantentzen dute?
- Jolasen aldagaienez egokia da?

Materiala:

- Erakargarria da? Estetikoki zaindua dago?
- Eskuratu nahi diren gaitasunetarako egokia da?
- Haurren eboluzioari erantzuteko gai da?
- Haurren garapen-mailara egokitua dago?
- Haurrek interesa dute harekiko? Mantenduko dugu?
- Egoera onean dago?

Elkarrizketak:

- Gaia esanguratsua da haurrentzat?
- Elkarrizketaren noranzkoa adostua izan da?
- Zer edo zer esateko gogotan geratu denik ba al dago?
- Denek izan dute parte hartzeko aukera bera?
- Haurrentzat egokiak izan dira elkarrizketaren hasiera eta gaiaren aurkezpena?

Esku-hartzeak:

- Haurren beharretatik sortu dira esku-hartzeak?
- Arazoa konpondu edo beharra asebetu dute?
- Haurrak behatu eta entzun ondoren moldatu edo birpentsatu dira?